



uk

38. zenbakia / 2003 martxoak 16

Non zer

4. GU GEU.
5. IRUDIA. Ameriketako bisoi. Asier Mentxaka.
6. PLAZA. Txema Ramirez de la Piscina. Leihatila, Josu Esnaola. Photoshop, Iñigo Mirantes.
7. LEHEN ETA ORAIN. Maidagan.
8. TALAIA. Beste begirada bat.
10. HERRIZ HERRI. Getxo 10. Leioa 14. Erandio 16. Sopela 18. Berango 20. Gainerako herriak 22.
23. AGENDA.

SAKONEAN

24. ALBUMA. Etxe txikiak. Asier Mentxaka.
26. BERBETAN. Manu Chao. Jabi Zabala.
30. ERREPORTAJEA. Denok gara Egunkaria.
32. ERREPORTAJEA. Inauteriak 2003 Uribe Kostan.

KULTURA ETA AISIA


36. ZINEMA. Oskar Fernández-en zutabea eta Isabel Coixet.
37. MUSIKA. Zuldar taldea.
38. IRAKURGAIK. Esti Ezkerraren zutabea eta Literatura Unibertsala bilduma.
39. KOMUNIKAZIOA. Koska irrati librearen programazio berria.
40. NATURA. Bisoi europarra eta atmosfera kutsadura.
41. ELKARRIZKETA. J. M. Isasi Urdangarin.
42. OSASUNA. Idorria eta fobiak.
43. JANTZI. Jaione Agirregaz egon gara.
44. SAREAN. Internet Iker Merchán-en eskutik.

EUSKARAZ


46. URIBERTSOAN BARRENA. Miren Loizagari elkarrizketa eta gainera bere bertsoak. Algortako Bertsolari Eskola.
48. AKABUKO PUNTE. Jose Luis Ugartegaz berbetan egon da Urtzi Iglesias. Xabi Bilbaoren "Gure berbakere" zutabea.
50. EUSKARA. Berriak, elkarrizketa...

AMAITZEKO

52. JAN ETA EDAN. Gaizka Escuderoren errezeta eta Itsaso Aranaren ardoari buruzko lezioa. Non jan pintxo bat? Adibidez, Erandioko Santi tabernan.
54. HOROSKOPOA.
55. KOMIKIA. Dogan Gozel.
56. DENBORAPASA ETA LEHIAKETA.
57. FLASH BACK. Zasi-Eskola dantza taldea, 1958.
58. AITORMENAK. Amaia Urkia. Eunate Serrano.



26 Manu Chao



12 Unai Garate

Berbetan


Duela gutxi gurean izan da eta Fermín Muguruzarekin batera hiru emanaldi eskaini zituen. Jabi Zabala gure kolaboratzailea beragaz egon zen.



32 Inauteriak



58 Amaia Urkia



41 J. M. Isasi Urdangarin



46 Miren Loizaga



zure **dirulaguntza** behar-beharrezkoa dugu!!!

Boluntzarreta

BBK 2095 0121 10 9102483676

sartu zure laguntza gure kontu zenbakian

UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

ARGITARATZAILEA: Boluntzarreta
HELBIBIDEA: Amezi 6, 4. solairua, 5. bulegoa 48990 GETXO
 e-mail: ukaldizkaria@telefonica.net / Posta Kutxa 171
 Tel: 94 491 13 37 / Fax: 94 491 58 31
ZUZENDARIA: Jokin Aspuru
ERREDAKZIOA: Unai Brea, Jon Urresti, Urtzi Iglesias, Eunatze Serrano
FOTOGRAFIA: Asier Menbeka
TESTUEN ORRAZKETA: Xabier Bilbao
KOLABORATZAILEAK: Bittor Egurrola, Itsaso Arana, Gaizka Escudero, Xabier Bilbao, Algortako Bertsolari Eskola, Iker Merchán, Esti Ezkerra, Nagore Etxebarri, Oskar Fernández, Josu Etxepare, Iratxe Agirre, Edoardo Ugarte, Xabier Buenetxea, Patxi Diaz, Gonzalo Ibarregaray, Berboto Erandion Euskaraz eta Bizarra Lepoan Euskara Elkarteak
MARRAZKILARIAK: Gorka Vázquez, Mitxelko Uranga, Dogan Gozel, Iñigo Mirantes
PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA: Zuriñe Martínez (94 491 13 37)
HARREMANAK: Gorka Orueta
FILMAZIOA: Argia / Inprimategia: GESTINGRAF
LEGE GORDAILUA: BI-1678-00
ISSN: 1576-6799

Osorik edo zatiz, makinaz zein informatikaz kopiatzea, baimen barik, erabat galarazirik dago
 © Boluntzarreta
 Aldizkari hau Euskal Herriko herri aldizkari eta euskara elkartearen Topaguneko partaidea da

Aldizkari honek Bizarra Lepoan Euskara Elkartearen dirulaguntza jasotzen du

Itxasgane Etxea / Karitatea 1
 94 491 43 57 / 48990 Algorta

TOPAGUNEA

GETXOKO UDALA

Aldizkari honek Getxoko Udalaren dirulaguntza jaso du

Leioako Udala

Aldizkari honek Leioako Udaleko Euskara Zerbitzuko dirulaguntza jaso du

BERANGOKO UDALA

Aldizkari honek Berangoko Udalaren dirulaguntza jaso du

Erandioko Udala

Aldizkari honek Erandioko Udalaren dirulaguntza jasotzen du

BERBOTO ERANDION EUSKARAZ

Aldizkari honek Erandioko Berboto Euskaraz elkartearen laguntza jasotzen du

Bizkaiko Foru Aldundia

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren dirulaguntza jaso du

UK

Behar beharrezkoak ditugu zuen dirulaguntza

BBK2095 0121 10 91 02483676

Boluntzarreta

gugeu

Gure txikian

Azalean ikusiko zenuten legez Manu Chao abeslaria ekarri dugu gure orrialdeetara. Mundu mailan ezaguna den musikaria, Euskal Herriko txoko bateko aldizkari apalean. Hau da marka! Hala ere, Chao gurean agertzea guztiz bat dator elkarrizketan esan duen gauza bategaz. Alegia, ez dela mundua aldatzeko gai sentitzen (gustatuko litzaiokeen arren, gutariko askori bezalaxe), baina bai iraultza txikiak egiteko. Auzoan, herrian... egiten den lanari ematen dio garrantzia.


Globalizazioaren aurkako ikurretako bat bihurtu da Manu Chao. Euskal Herriko lokal txikietan kontzertuak ematen ibili zen elkarrizketa hau egin genionean; aurretik, Galiziara joan zen, bertako egoera bertakoekaz berbetan ezagutu ahal izateko. Disketxe ospetsu bategaz zeukan harremana ere apurto berri du, eta orain bere kabuz grabatzen du. Maila apalean egiten du berea, multinazional handien menpe dagoen mundu hau iraultzea zaila dela jakitun, baina konformatu ezin garela argi edukita. Zaila da euskarazko egunkari nazional bakarra itxi dutenen kontra ezer egitea, baina ez ahaztu herri mailan gabiltzan dozenaka komunikabide txikiok badaukagula zer esanik. Gure txikian bada ere.

UK-ko lantaldea

gutunak

Atal honetan irakurleen iritzia, eskaerak, gutunak argitaratu nahi ditugu. Zuen testuak biartzeko: aldizkaria@euskalnet.net • Faxe: 94 491 58 31

goierritarrak



Denok gara **Egunkaria**



Ameriketako bisoia Boluen / Xabier Buenetxea eta bere lantaldeak –Bolue padurako faunaren jarrapena egiten dutenak–, Ameriketako bisoi bat harrapatu berri dute berran. Egun batzuk lehenago sei ahate eta isatsxori bi hilik azaldu ziren inguru hartan. Egoera ikusita, animaliak bizirik harrapatzeko trampa jarri zuten inguruan eta laster bisoia hantxe sartu zen. Espezie hau larritzarako abeleteratik ihes eginda azalzen da gurean, eta bertakoa den bisoi europarraren etsai handia da. Izan ere, habitat berean ibiltzen da, eta amerikarra handiago denez bertakoa baztertu eta hil ere egin dezake. Gainera jaturan aseztina da, eta bisoi europarraren emeak emaltzen ditu, baina gero azken azken hauek ez dute kumerik egiten. Azkenik, aitatu behar da bisoi europarra Europako ugaztun babestunetako dela. / Argazkia: Asier Menbeka

Leihatila

> Josu Esnaola

Martxoak 3

Aurten ere zarata handirik gabe pasa zaigu martxoaren hirua. Badirudi inori ez zaiola gehiegi interesa egun hartan gertatu zena gogora ekartzea. Nik gogoratzen dut eta ez dut ahaztu nahi. Gogoratzen dut langileek euren indarretan sinesten zuten garaia, gogoratzen ditut lantokietan, ikastetxeetan, herriko plazan edota elizan egindako bilkuretako eztabaidak, demokrazia zuzena eta partehartzaila. Gogoratzen dut nola errespetatzen ziren bertan hartutako erabakiak, sindikatu edo alderdiek esaten zutenaren gainetik kasu askotan. Nola ulertu, bestela, Gasteizko langileek hiru hilabetez grebari eustea eta 1976 hartako martxoaren hiruan halako jende multzoa biltzea Zaramagako elizan egitekoa zen batzarrera? Nola ulertu Manuel Fragaren aginduetara zegoen poliziak, bera baitzen "ministro de gobernación", bost langile hil eta ehun baino gehiago zauritu izana?

Baina ez da ezer gertatzen, Fraga demokratak hortxe dirau, sasoi hartan Gasteizko eta Euskal Herri osoko langileak iraindu zituen bezala gaur egun Galiziako arrantzaleak iraintzen ("los pescadores gallegos se quejan de vicio"). Inork ez dizkio kontuak eskatuko, gure "Bloody Sunday" lazgarri hartaz ez da inolako filmerik egingo eta urte batzuk barru Euskal Herrian mugimendu autonomoa izan zenik ere ez dugu jakingo. Sasoi hobeak etorriko al dira! 4

Iritzia

Auzitegi Nazionalak Euskaldunon Egunkaria egun batetik bestera itxi du. EHUk kazetaritza irakaslea den Txema Ramirez de la Piscinari bere gogoeta eskatu diogu.

Bestelako jokalekua



«Euskal gizartearen baitan dagoen gehiengo zabal, demokratiko, euskaltzale eta aurrerazalea berraktibatu behar da»

Aitziber, gure 10 urteko alaba, Egunkaria-zalea izan da beti. Bereziki maite zuen Andoaingo kazetak larunbatero plazaratzen zuten "Xingola" gehigarria. Txukun-txukun, kuxidade handiz bildumatuta zeuzkan azken aleak bere apaltxoan. Hizpide eta denbora-pasa ederra zen "Xingola" berarentzat, baita bere adineko laguntxoentzat ere. Otsailaren 20an, bazkaltzen ari ginela, telebistaren aurrean Egunkaria-ren itxieraren berri zuzena izan genuenean, galdera zuzena egin zigun: "Orduan... Xingola ez dut berriz irakurriko?". Gurasoen erantzuna: "Ez dut uste, laztana". Segidan inoiz entzun diogun biraorik izugarriena bota zuen (gazteleraz bota ere). Elkarri begiratu eta ikaratu egin ginen. Ileak ere laztu egin zitzaizkigun. Momentuko beroaldiari egotzi genion gurasook neskatilaren erreakzioa eta egoera samurtzen ahalegindu ginen.

Pasadizoak garbiro azaltzen du astinduaren neurria. Egunkaria-ren itxierak euskaldunon eta Euskal Herriko erdal hiztun gehientsuen bihotza ere sumindu du "Hitza, bihotzaren giltza" izan ohi da gure artean. Torquemadak giltza horretaz jabetu nahi izan du. Itxierari pilatu zaizkion gertaerak —atxilotetak, Pello Zubiriaren egoera, kartzelaratzak, senideei emandako tratua...— sakondu egin dute gure minaren ozpina.

Lerro xumeok, ordea, ez dute herraren bidean gehiago sakondu nahi. Ez. Premiazko gogoeta honen hartzaile zuzenak dira, batik bat, garai batean Lizarra-Garazi itunaren baitan bildu ziren euskal gizarte-eragile guztiak. Fede-ekintzak baino herri honek ausardia behar du eta horixe eskatu behar zaie, bai ETari, bai Eusko Jaurlaritza osatzen duten alderdiei eta tartean dauden bestelako eragileei ere. Euskal gizartearen baitan dagoen gehiengo zabal, demokratiko, euskaltzale eta aurrerazalea berraktibatu behar da.

Itxieraren biharamunean beste euskal egunkari bat genuen esku artean. Nork esaten digu hemendik pare bat urtera ez ote garen, berriz ere, antzeko zereginetan murgilduta egongo? Ezinbestekoa da beste jokaleku batera joatea, plaza demokratiko baterantz abiatzea, beste agertoki bat non ideia guztiak, egitasmo guztiak libreki adierazteko askatasuna izango duten, non euskaldunok Torquemada berrien susmopetik at, lasai asko, bizitzeko eskubidea izango dugun.

Lehenago egunean, gure alabaren begi-ninian antzeman nuen herrak ikaratu ninduen. Gure seme-alabek bestelako etorkizuna merezi dute. 4

Txema Ramirez de Piscina (Kazetaritzako irakaslea EHUk)



Matxalene etxea



Iraganez doa denbora* beti / MAIDAGAN 1957-2003

* **Denbora:** gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.

photoshop > Bandera pirata ipini dute metro plazan



Argazkia: Asier Mentxaka / Manipulazioa: edicionexts




Algortako Hirutasun elizaren alboan dago gune hau

zer da hau > kutsadura neurtzeko

Beharbada askotan igaro zara beraren ondotik. Algortako Hirutasun elizaren alboan dago eta, itxuragatik, edozer gauza dela pentsa daiteke: estralurtarrekaz harremanean jartzeko tramankulua, esaterako. Ez, bada. Airearen kutsadura neurtzeko gunea da eta, UK honetako 40. orrialdean azaltzen dugun bezala, airean dauden hainbat zikinkeraren kontzentrazioa neurtzeko balio du. ^m

gauzak > plastikozko poltsa

Egunero, edo astero behintzat, pare bat hartu eta erositakoaz betetzen ditugu. Plastikozko poltsa arruntaz ari gara jakina; gure bizitzan, honezkero, guztiz errotuta dagoen produktua. Urtean milaka milioika egiten dira, eta baita erabili ere. Plastikoa mota asko dago, baina denda eta supermerkatuetan hartzen ditugun poltsak polietileno eginda daude. Hain zuzen, polietileno mota bi erabil daitezke, dentsitate handikoa eta txikikoa; jeneralean, supermerkatuetakoa lehenbizikoetakoa izaten da. Polietilenoa 1953an asmatu zuen Karl Ziegler kimikari alemaniarrak; gaur egun gehien erabiltzen den plastikoa mota da, hurrengo urtean aurkitutako polipropilenoagaz batera. ^m



Paseatzeko leku kutuna da hau getxoztarrentzat

datua > Arriluzeko muturra, 1.072 metro

Getxoko Kirol Portua Algortako kontrakaiaren eta olatu-hormaren gainean dago, zuetako askok jakingo duzuen bezala. Eraikuntza bi hauen sorrera ezagutzeko Bilboko portuak XIX. mendeko azken herenean burdinazko meategien esplotazio indartsuaren bultzadaz izan zuen gorakada izugarriari erreparatu behar diogu; burdinaren garraioak itsasontziak ugaritzea ekarri zuen, bai eta babesleku egokiago baten beharra ere. Beraz, 1.450 metroko olatu-horma egiten hasi ziren; lehen harria 1888an bota zuten uretara eta 14 urte geroago Alfonso XIII Erregeak azkenengoa ipini zuen. Aldi berean, eta Punta Begoñatik hasita, 1.072 metroko luzera duen Algortako kontrakaia (edo Ekialdeko kai-muturra) eraikitzen hasi ziren. Portuko lan itzel hauen oroipen gisa, eraikuntzan erabili zen "Titán" izeneko garabia ipini zuten kontrakaiaren hasieran eta han egon zen 1972 urtera arte. ^m

kale izendegia > basagoiti



Algortako kale nagusi honek izen ezberdinak izan ditu azken mendeetan zehar: Tetuán eta Kale Nagusia, alegia. Baina 1897az geroztik Basagoiti Etorbidea izena du, 1848an Algortan jaio zen Antonio Basagoiti Arteta oroitzeko. Industriari hau Banco Hispano Americano-ren sustatzaile nagusia izan zen. Mexikotik itzuli zenean, Getxoko alkateak bere nahigabea adierazi zion garai hartako Herri Lan Sailak portuko horman egin nahi zituen aldakuntzak zirela-eta; pareta horrek Eragako hondartza eta Portu Zaharra desagertarazi egingo ei zituen. Basagoitiren kudeaketak proiektua geldiarazi zuen eta horrexegatik herriak omenaldi jendetsu bat eman eta Udalak bere kalerik kutunena eskaini zion. ^m

Argazkian, Antonio Basagoiti

Getxoko Andra Mari Zerbitzu Estazioa

Txartel hau aurkezten baduzu %50ko deskontua izango duzu zure autoaren garbiketarako

Bilbo-Plentzia errepidea 18. km
Getxo / Tel: 94 430 15 00

BISITATU GURE DENDA!

MOROTXO



350^{m²} KIROLERAKO GUZTIA!!

URIBE KOSTAKO KIROL DENDA

TORRENE 4
ALGORTAKO AZOKA
48990 ALGORTA
TF. 94 491 18 82

bada > lamiakoko beirategia

1890. urtean Amadeo Deprit-en ekimenez, Leioako Lamiako auzoko lehenengo enpresa izan zena sortu zuten: "Fábrica de vidrio de Lamiaco" izena zuena, hain zuzen ere. Hasierako urteetan zenbait izen aldaketa eta bategite izan zituen; 1925ean, "Compañía general de vidrieras españolas S.A." izena hartu zuen arte. Komunikazioen aldetik, oso leku estrategikoan zegoen kokatuta; Bilboko portua, Bilbo-Areeta errepidea eta Bilbo-Plentzia trenbidea ondo-ondoan baitzeuden. 7.400 m² zituen eta bertan, beira lau lantzen zuten. Behar gogorra zen hori, langile batzuk (horietako asko, atzerritarrak), beira zati goriei putz egin behar baitzieten, ondoren plantxetan zabaltzeko eta honela beira lau lortzeko. 1925ean egon ziren aldaketek, berriz, prozesu horren mekanizazioa ere ekarri zuten. Beirategiak, bere langileentzako etxea ere izan zuen han bertan. ^m

Gaur egungo Lamiakoko beira lantegia



Bidegurutze berria Benantzion

Azaroaren 4an hasi ziren jende asko aztoratuta daukaten Benantzioko bidegurutzeko lanak. **Sei hilabete** eta erdi iraungo dute gutxi gorabehera, eta besteak beste **errotonda bi** egiten ari dira bertan

Beharbada handik ibili zara. Eta hala bada, segurantzean “noiz demontre amaituko dituzte lan hauek?” pentsatu duzu. Benantzioko bidegurutzeaz ari gara (herritar xeheak darabilen izena erabiltzearen). Getxoko Sarrikobaso, Ollarretxe, Bidezabal eta beste pare bat kale gehiago elkartzan diren inguru horri orain arteko itxura aldatuko diote guztiz, orain arte arriskutsua izan delakoan.

Benantzioko bidegurutze ezaguna egokitze lanek luze dira dagoeneko, eta luzeago iraungo dute: maiatzaren amaiera arte, eta hori dena ondo badoa. Lan erraldoi horri ekiteko arrazoietakoa bat da, Andrés Uriarte hirigintza zinegotziak azaldu digunez, “orain arte zegoen bezala oinezkoentzat errepidea zeharkatzea arriskutsua zela”. Horrez gain, eta Uriarteren berbetan beti ere, autoentzat zailagoa zen inguru horretatik ibiltzea Uribe Kostako “korridore”-aren urteera egin zenetik.

Arrisku horiek ez dute istripu handirik ekarri orain arte, baina traba ugari ekarri diete alboko kaleetako auzotarrei. Ollarretxeok, esaterako, ibilaldi luzea egin behar zuten errepidea arrisku barik zeharkatu ahal izateko.

Errotonda bi
Arazo horiek konpontzeko asmoz, bidegurutze goitik behera aldatzeari ekin diote. Alde batetik, 15 metroko diametroa edukiko duten errotonda bi egongo dituz-



Maiatzean amaituko ei dira bidegurutzea hobetzeko lanak

te (handik igaroz gero ikus daitezke dagoeneko). Holan, orain arteko bidegurutze-etan ondo ikusteko egon diren arazoak saihestuko dira.

Bestalde, bederatzi zebra-bide berri egingo dira, horietatik zortzi aipatutako errotonden inguruan. Gainera, espaloiak

«Oinezkoentzat arriskutsua zen errepidea zeharkatzea»

handitu egingo dira oinezkoen segurtasuna handitzeko. Uriartek dioenez, “Jendeak aspaldidanik eskatzen zuen lana da hau”. Bidegurutze berriagaz lortu gura den beste gauzetako bat Algorta barruko autoen joan-etorria arintzea da. “Gaur egun”, dio

Uriartek, “korridoreira irteko ia gidari guztiak joaten dira Euskal Herria kalera, Benantzioko bidegurutzea hurbilago eduki arren, eta hain zuzen ere Benantziokotik igarotzeak daukan zailtasunagatik”. Lanak amaitutakoan asko erraztuko da korridore-rako sarbidea; teoriar behintzat, Algortako auto askok bide berria aukeratu dute. m

DATU BATZUK

- Lanen aurrekontua **704.726,79** eurokoa da (117.256.671 pezeta).
- Sei hilabete eta erdi iraungo dutela aurreikusten da, azaroaren 4tik maiatzaren amaierara arte.
- Bederatzi zebra-bide berri

Gazte bulego berria zabalduko dute Tangora Etxean



Algortako Tangora etxea

Algortako Tangora Etxean gazteentzako informazio bulegoa ipiniko da aurton: uda baino lehenago prest egongo dela iragarri da. Bulego berriak hainbat arloren gaineko argibideak emango dizkie halan gura duten gazteei: bekak, lana, etxebizitza, aisialdia, turismoa...

Ekimena Gazte Plangintzaren barruan kokatzen da. Getxoko udalak Deustuko Unibertsitateko Aisialdi Institutuari eskatu dio plangintza hori diseinatzeko. Une

honetan, institutu horrek txostena prestatzen dihardu.

Eragile askoren parte hartzea
Herriko hainbat elkartetan parte hartu dute txostenerako ekarpenak emanez. Modu horretan, egileek herriaren beharrak eta asmoak ezagutzeko aukera eduki dute. Guztira, udaletxeak datozen urteetan aurrera eroango dituen 150 ekintza bilduko ditu txostenak. m

GETXO SURF TALDEA, KIDE BERRIEN BILA

Getxo Surf Taldeak deialdia zabaldu du taldera kide berriak batu daitezkeen. Batez ere 7 eta 14 urte bitartekoei zuzentzen zaie deia, baina edonor has daiteke parte hartzen, surf egiten ikasi gura izanez gero. Horretarako, taldeak eskaintzen dituen ikastaroetan izena eman besterik ez da egin behar. Deialdiarekiko interesa agertzen dutenentzat telefono zenbaki bat ipini du Getxo Surf taldeak: 606 08 88 74. Era berean, bazkideek urtean ordaindu beharreko dirulaguntza 9 eurokoa dela gogorazi gura dute elkarte arduradunek.

Azkenik, gogorazi behar da Euskadiko Surf Federazioak momentuz uretara ez sartzeko gomendioa egin diela surf-lariari, Prestigek isuritako galipotak, oraindik ere, osasunari kalte egin diezaiokeelako.



cianoplan s.a.
global printers

Villa de Plentzia 6. zbk
Antiguo Golf - Getxo
tfnoak: 944 64 90 87
944 64 86 91
http://www.cianoplan.es

- Inprimatze eta plano kopiak.
- Kartelak kolorez eta z/b.
- Digitalizazio eta bektorizazio, automatikoa eta lagundua.
- Fotokopiak kolorez eta z/b.
- Era desberdinetako koadernaketak.
- Plastifikazioak.
- Fax zerbitzua.

...eta gainera, fitxategien imprimaketa!

Getxo Bizia

Getxoko **plataforma** berria aurkeztu dute

“**Gernika Deialdiari** egindako erantzuna da Getxoko mailan, ezkerzale eta abertzale sentitzen garenok, gure jarduera momentu honetan oso zaila izan arren, aurrera egiten laguntzeko tresna izan dadin”. Halan azaltzen du Urko Uriartek Getxo Bizia, martxoaren 2an aurkeztu zen plataforma, zer den. Uriarte aurkezpen ekitaldira joan ziren 250 lagunetako bat da: “*Erabakiak herri mailan hartzeak daukan garrantzia azpimarratu genuen*”, dio, “*eta jendeari dei egin genion parte hartzeko, denen ekarria beharrezkoa dela gogorarazteko*”.

Momentuz ez dago finkatuta zein esparrutan arituko den Getxo Bizia, ez eta beraren jarduera motak eta funtzionamendu zehatza zeintzuk izango diren ere. “*La dena dago erabakitzeke*”, esan digu Uriartek, “*oraingoz plataforma aurkeztu eta sinadurak bildu baino ez dugu egin. Ezkerzale eta abertzale sentitzen direnek parametro horietan lan egitea hain gaxa den honetan, jarduteko gune bat edukiko dutela esan gura dugu*”. Dena dela, Uriartek aurreratu digunez, bilerak egiteko asmoa daukate, plataformak jorratu beharreko gaiak zeintzuk diren erabakitzeke asmoz. ^m



Plataforma aurkeztu zen eguna

Unai Garate > Antzerkigilea

“Hitza maite dut eta edozer gauza egingo nuke”



Argazkian, Unai Garate

“**Mundopolski**” izenburuko antzezlanaren izan da Algortan bizi den 28 urteko erromoztar gazte honen estreinako gidoia. Horregatik, Unai Garatek ez du oraindik bere burua antzerkigiletzat hartzen.

—“Mundopolski” obra orain hilabete dela taularatu zenuten Getxo Antzokian. Zelan joan ziren emanaldiak?

—Espero genuen bezala, jende nahikotxo egon zen. Nire ustez euskarazko emanaldia gaztelaniazkoa baino askoz hobea izan zen; iruditu zitzaizkidan aktoreak hotzago egon zirela gaztelaniaz.

—Zelan sartu zinen Antzerkiola Imaginarioa taldean?

—Kide gehienak nire koadrilakoak dira. Irlandatik bueltatu nintzenez aluzinatuta egin nuen taldearekin. 2000. urtean, Jon Gerediagak bultzatu egin ninduen “Mundopolski” antzezlanaren testua berarekin idaztera; Jonen eman zizkidan gidioaren

nondik-norakoak eta berari batez ere zor diot “Mundopolski”-ren sorrera.

—Noizdanik daukazu idazteko zaletasuna?

—Betidanik gustatu izan zait idaztea. Bizi naizen pisuan antzerki giroa dago nonahi, nire pisukideak aktoreak, zuzendariak, idazleak edo eszenografoak direlako, eta beti antzerkiaren gainean jarduten dugulako. Beraz, giro horri hitzak baino ez dizkiot erantsi behar.

—Zelako istorioak kontatzea gustatzen zaizu?

—Fernando León de Aranoa zinemagileari behin entzun nion esaten pertsona batek gertatzen zaionaren gainean edo bere aldamenean ikusten duenaren gainean idatzi behar duela, eta guztiz ados nago horrekin. Orohar, kezkatzen nauten gauzak islatzen ditut.

—Istorioren bat buruan?

—Beti daukat burua milaka bira ematen. Euskal Herriko Unibertsitateko antzerki-taldeak maiatzaren 14an estreinatuko duen obraren gidoia egiten ari naiz Jon Gerediagarekin batera. Bestalde, “Makari” izenburuko antzezlanaren idazteko beka jaso genuen eta aurten amaitu behar dugu hori, datorren urtean lanean hasteko.

«Kezkatzen nauten gauzak islatzen ditut nire idazlanetan»

—Antzerkirako idazten duzu batez ere. Gustatuko litzaizuke zerbait egitea zinemarako edo telebistarako?

—Hitza maite dut eta edozer gauza egingo nuke. Badakit oso zaila dela, baina nire erronka da gidio bat idaztea zinemarako eta pelikula hori zuzendu eta ekoiztea. ^m



Argazkian, taldeko kide batzuk bilera batean

Itxas Argia Mendi Taldea

Hainbat ibilaldi egiten dituzte urtean zehar

Itxas Argia elkarteak 1954an sortu zen euskal ohiturei eusteko asmoarekin, ohitura horiei eustea gaxa zen garai batean. Denboraz, elkartearen barruan talde autonomoak sortu ziren: gauza batzuk elkarrengaz antolatzen dituzte, baina eguneroko funtzionamendua bananduta daukate.

Horietako bat Itxas Argia Mendi Taldea da; bertako kide den Carmen Estrada getxoztarragaz berba egin dugu taldea apur bat hobeto ezagutzeko. “*140 eta 160 lagun bitartean gaude taldean federatuta*”, diosku Estradak, “*baina urteerata ez gara hainbeste joaten. Izan ere, gehieneko jende kopuru*

bat ezarri behar izan dugu urteera bakoitzeko, eta orain ez gara inoiz 40 lagun baino gehiago joaten. Badirudi moda dagoela orain mendira joateko, baina mendira kontu apur batez joan behar da”.

Prestakuntza maila arrunta

Urtean 15en bat urtenaldi egiten dituzte, batzuk egun bakarrekoak eta, lantzean behin, “*urtero hiru edo lau bider*”, asteburu osokoak, Pirinioetara, Europako Gailurretara eta antzekoetara. Gehienetan, ez da prestakuntza maila lar handia behar izaten. ^m

Harremanetarako: 94 430 06 62

MARTXOAREN 21EAN, FOTOPOEMAK GETXON

Datorren martxoaren 21ean (barikua) poesiaren eguna ospatuko da Getxon. Horretarako, Joseba Gotzon Portugaleteko abeslariak *Fotopoemak*, bere azken diskoaren aurkezpena egingo du Getxo Antzokian, arratsaldeko 8etatik aurrera. Diskoko hamar kantuek Mario Angel Marrodan poetaren olerkietan oinarrituta daude.

Getxo Antzokiko emanaldian, Joseba Gotzonek abesteaz gain, Marrodanek berak hainbat olerki irakurriko ditu, gazteleraz. Bertara joateko gonbidapenak martxoaren 10etik daude eskuragai, Getxoko Liburutegian eta Kultur Etxean. *Fotopoemak* iazko urritik dago antzetzokietan, eta honezkerok Euskal Herriko eta Euskal Herrikan kanpoko hamaika antzokitan egon da. Hala ere, Getxoko diskoaren aurkezpena ofiziala izango da. Joseba Gotzonen zortzigarren lana da honako hau, 1984an lehen diskoa argitaratu zuenetik.

Argazkian, Joseba Gotzon Varela



SATISTEGI

CALLE

ADITUAK GARA PINTXO ETA BOKATA BEROETAN!!!!

BASAGOITI ETORBIDEA 51
ALGORTA

Hau zinea!

Hainbat egile
hizlari Leioan

Martxo osoan zehar, martitzenero hain zuzen, ikusentzuzko eremuan beharrezkoak diren hainbat pertsonaia egongo dira hitzaldiak ematen. Gainera, euren lanen zatiak erakutsiko dira. Sabino Arana Kultur Guneko erabilera anitzeko gelan egiten ari dira, hain zuzen, ekitaldiok. Dagoeneko igaro dira bertatik Ainara Trigueros eta David Peral leioaztar gazteak eta Areto enpresa. Martxoaren 18an, berriz, Ibarretxe anaien txanda izango da. Getxoaztar hauek urteak darabizate zinemagintzan, zuzendari, gidolari eta ekoizle modura; euren lanik ezagunena, *Sabotaje*, Euskal Herriko historiako pelikularik garestiena izan da orain arte. Martxoaren 25ean, azkenik, Galder Gaztelu-Urrutia egongo da Leioan. Besteak beste, EITBren azken iragarki ospetsua egin du Galderrek. m



Ramón Fernández, Leioa Bai elkartearen presidentea

Leioa hobetzeko asmoz

Duela gutxi sortu da Leioa Bai auzotar elkarte, herriaren arazoak konpontzeko helburuagaz

Ramón Fernández presidentea azaldu dizkigu Leioa Bai auzotar elkartearen nondik norakoak. Esan duenez, *“administrazioari dagozkion hainbat gai hobetzeko nahia da elkartearen jatorria; Leioako hiritarren eta administrazioaren arteko zubi lana egingo dugu”*.


Hainbat arlotan jardungo du Leioa Baik. Etorkinen bizi baldintzak, babes ofizialeko etxebizitzak, hirugarren adinekoak, segurtasuna... adibide batzuk dira. Elkarrekin egingo dituen proposamenen artean,

esaterako, *“etorkinentzako bulego bakarra egotea, babes ofizialeko etxeak merkatu librekoak bezainbeste izatea”* edo *“Leioak gune berde gehiago eukitea”* daude.

Auzo guztietakoa

Leioa Baik auzo guztietara heldu gura du. *“Hilero bilkura bat egingo dugu”*, diosku Fernándezek, *“eta herritarren eskariak udaletxera edo dagozkion administrazioa erango ditugu”*. Orain elkartearen ezagutarazten dabilta. m

Harremanetarako: 696 347 252



Basurto

Algora S.L.

altzariak

Telletxe 15 • Algora • T: 460 42 44

LEHEN, ORAIN ETA BETI

- 1970az geroztik altzariak diseinatzen.
- Orain ere, armairuak neurrira.
- 200 m²ko erakusketa berria: Telletxe 4 (T: 94 460 71 62)

Zatoz!

Enrique Pardo eta “Richard” Urquijo > Tiragomagileak

“Corte Ingles-ek baino eskari gehiago dauzkagu”



“Richard” eta Enrique, milaka tiragoma dituen lonjan

Duela urte bat baino gehitxoago hasi ziren afizio honez, baina dagoeneko milaka tiragoma egin dituzte Leioako Enrique Pardok eta Francisco “Richard” Urquijok. Goizero-goizero hiruzpalau ordu ematen dituzte lonja txiki batean. *“Hemen 3.000 inguru dauzkagu, eta eman ere, beste 500 edo 600 emango genituen”*, dioskue.

Gehiegi pentsatu barik hasi ziren tiragomagintzan, *“mendian makil egoki bat aurkitu eta, txikitatik tiragoma gustatu zaidanez, egitea bururatu zitzaidan”*, azaldu du Enriquek. Orain, era eta ma-

terial askotako tiragomak dauzkate, gehienak eurek egindakoak.

“Produktzio” handia

Tiragomak oparitu egiten dituzte. *“Etorri zaigu baten bat erosiko zigula esanez, baina hau denborapasa da eta ez dugu kobratzen. Corte Ingles-ek baino eskari gehiago dauzkagu”*. Egurra mendian lortzen dute, eta gainerako materialak (gomak, larrua, kobrezko haria) hark edo honek utzita. Diotenez, tiragoma ondo egiteko gakoak gomaren alde biek luzera berbera edukitzean dago. m

etorri eta ikusi!!

ORIXA

liburudenda

Alangoeta 8 (Euskal Herria kalearekin bat)
Tfn.: 94 491 23 79
Algora

Basagoiti, 55 behea
T.: 94 460 09 62 / 66
Faxa: 94 460 09 66
48990 ALGORTA
eginkor@euskalnet.net
www.inmoeginkor.com

EGINKOR
INMOBILIARIA

BEROGAILU ETA ITUR-

T: 430 53

HIRURAK

Sarrikobaso 15

amesti 7sl

[eraikuntzak]
[etxeetako berrikuntzak]
[gremioen koordinaketa]

Kasune 9 • Tel./Fax: 94 431 98 06
48990 ALGORTA

Elkartasuna Sahara

2700 kilo janari bildu dira herrian

Erandioko Nishma Elkarteak antolatuturik eta udalak berak zein ikastetxeek, elkarteek, gizabanakoek eta supermerkatuek lagunduta, 2.700 funtsezko elikagai kilo biltzea lortu da saharar errefuxiatuen kanpamentuetarako, Erandioko herriaren elkartasun mailaren adierazgarri.

Ekimena, Bizkaiko Sahararen Aldeko Lagunen Koordinakundeak bultzatuta, errefuxiatuek duten egoera latza neurri batean arintzeko balioko du, kanpoko laguntza besterik ez baitute beraien bizi-raupenerako; gainera, aurten janari murritzeta gogorra jasan beharko dute, Elikagaien Munduko Programarako (PAM) eta ACNUR erakunderako izango den fondoan urritzeagatik.

Hautsesnea eta osasun materiala bidaliz osatu da karabana, eta garraiorako erabilitako ibilgailuak ere eman egiten zaizkie, laguntza Tindouf-eko basamortuan sakabanaturik dauden herri eta auzo guztietara iristen dela ziurtatzeko. Guztira, aurten Bizkaiko 70 udalerritan bildutako 120 tona elikagai bidali dira. m

Tindouf-eko kanpanpamendua



Argazkian, Izaskun Arruzabala

Izaskun Arruzabala > eskubaloia jokalaria
“Harro sentitu naiz Euskadiko selekzioan jokatu dudalako”

Izaskunek 15 urte ditu eta lau urte daroaz eskubaloian jokatzen Askartza taldean. Talde sendoa dute eta lehen itzuliko partid guztiak irabazi ondoren, eurak dira hiru probintzietako euskal ligan taldeburu.

Mundakako Urdaibai dute etsai nagusi, baina oraindik bost puntuko alde kentzen diote: “Aurten geuk irabaziko dugu liga”. Izaskun pozik dago Euskadiko Selektzioan jokatzeak aukera izan duelako. Gabonetan Murtzian izan dira Autonomietako selekzioen arteko txapelketan eta esperientzia gazi-goza izan dela esan digu. “Kirol arloan emaitza txarrak izan ditugu, ez dugu geure maila eman eta partidu bat baino ez dugu irabazi. Gainera Madrilen kontra galtzeak amorru berezia eman zigun”. Baina beste alde batetik Euskadiko Selektzioan lagunak egin ditu, eta orain asteroko partidetan aurrez aurre dituen jokalarik batzuk ezagutu egiten

dituenez, beste era batera ikusten du lehiakortasunaren kontua. Konparazioak egiteko ere balio izan die Murtziako txapelketak: beste autonomietakoekin alderatuta Euskadiko Selektzioa neskak txikiak eta argalak direla dio 1,70 metroko neska sendo honek.

Kirol gogorra omen da eskubaloia. Gogor sartzen dira erasoan eta sarritan ibiltzen dira belaunak mankata, lepoa minduta... Entrenamenduetan ere, astean lau bider, bi orduko saio fisiko eta teknikoak izaten dituzte. Horrekin guztiarekin, gustora dabil eta horretan luzaroan jarraitzeko asmotan gainera.

Izaskunek gogoan dauka hasieran, huts egiten zutenetan negarrez hasten zirela. Orduan gurasoek, harmailetatik, animoak ematen zizkietela aurrera jarraitzeko. Orain ere izaten dute gurasoen laguntza, baina beste era batera: buila eta zarata itzela ateratzen dute harmailetan, arbitroari edozer esan... Partidetako beste osagarria baitira. m

José Ignacio Blanco > Lutxanako Keli taldekoa

“Auzokoei lan txikiak egiteko lantegia eskaini nahi diegu”



Argazkian, José Ignacio Blanco

Keli taldea Lutxanan sortu zen orain dela zortzi bat urte, izen horrekin bost bat baino bete ez dituen arren. Hasieran Ilun taldea izenagaz jarri zen abian. Orduan, Lutxanako Kultur Elkartea utzi eta eurentzako egoitza berezia eskatu zioten udalari gazte hauek. Keli taldearen gorabeherak ezagutzeko Jose Ignacio Blanco Lutxanako gaztearekin egon gara.

—Zergatik talde berria sortu kultur elkartea utziz? Elkartearen barruan guk txotxongilo, hankapaluak, pintura eta antzeko lantegiak egiten genituen. Antolatzen genituen ekimenen ondorioz elkartearen gelak zikin-zikin geratzen omen ziren eta orduan kritikak saihesteko talde berria sortzea erabaki genuen. Egia da horrelako gauzak egiteko leku aproposa behar dela. Beraz, erabaki genuen onena zela gure esku eta ardurapean egongo zen lokala lortzea.

—Eta orduan Keli taldeak zer egiten du Lutxanan? Denetarik: txotxongiloak, han-

kapaluak, malabareak, antzerkia, bizikletak eta josteko makinak konpontzeko lantegiak, mosaiko lantegia, argazkigintza eta azken batean bururatzen zaigun guztia. Izan ere, gure asmoa lantegiaren baliabideak eta lanabesak auzokoen eskura jartzea da. —Beraz, kultura eszenikoari lekutxo bat egin diozue Lutxanan? Bai, txotxongiloekin batera, Lutxanako Antzerki “Teatrino” lokala egokitu dugu. Prestakuntza saioetarako gela gisa edo emanaldi txikietarako erabili nahi dugu. Era berean, eskoletako *motobomba* gela egokitu egin dugu kaleko musikariei lekutxo bat eskaintzeko.

—Eta nola sortu zen lantegiaren ideia? Gauza batek ondorengoa ekarri zuen. Taldekide batek han-hemen aurkitzen zituen bizikleta zaharrak bildu eta txirridula berria egin zuen. Birziklatzeko

«Denetarik egiten dugu: hankapaluak, mosaikoak argazkigintza...»

moduko atalak biltzen hasi ginen eta duguna erabiliz nahi duenari txirridula konpontzen laguntzen diogu. Bizikleten kontuaren ostean josteko makinaren ideia sortu zen. Bitartean auzokoen leihotako hesiak konpontzen eta margotzen hasi ginen. Geroxeago eskola aurrean hutsik zegoen lursailean mosaiko bat egitea pentsatu genuen. Lantxo hauek guztiak egiteko lanabes eta tresna asko bildu behar izan dugu eta azkenean nahiko lantegi polita osatu dugu.

—Asmo berriak izango dituzue, ezta? Martxoan gure bosgarren urteurrena ospatzeko ekimen bi burutu nahi ditugu: “zuhaitz eguna” eta Lutxanako Eskolak zaharberritzeko auzolana. m

SEXUARI BURUZKO ANTZERKI EMANALDIA MARTXOAREN 18AN

Pikor Teatro taldeak antzeziana aurkeztuko du Astrabuduko Josu Murueta Kultur Etxean, datorren asteartean, martxoak 18, goizeko 11:30ean. Emankizun hau 13tik 18 urtera bitarteko neska-mutuei zuzenduta dago eta sexua baldintzapean gozatzeko kontua dela azpimarratzen du. Gazteak sexuaren mundura Umorea eta ausardiaz hurbildu nahirik, GIB/HIESaren inguruko gogoetaz, gaitza pairatzen dutenekiko elkartasun jarreraz eta hura ez harrapatzeko hartu beharreko neurriez mintzo dira. Komikotasun handiko sketchen bidez aurreneko sexu esperientzia gogorarazteaz batera, preberbatiboa erabiltzearen onura eta zailtasun guztien jakinaren gainean jarriko gaituzte Euskara Zerbitzuak antolatutako emankizun honetan.

Bilboko turribidealean
BAR? LA? ESPUELA

Ostegun kulturalak Puntako

elkartoki eta giro jatorria

12:00tatik 15:00ak arte
18:00tatik 22:00ak arte

Asteburuetan: 18:00tatik aurre

tel: 94 415 05



KURKUDI
LIBURU DENA

Euskarazko
irakurgai

Juan Bautista Zabala 8, 48990 ALGORTA
T: 944 913 402

Antzerkia hainbat lan ikusgai martxoan

Martxoaren 2an hasi zen Kultur Etxeak antolatutako II Antzerki Zikloa. Hilaren bigarren hamabostaldian, hain zuzen, honokoz gozatzeko aukera edukiko duzue:

- Martxoak 16, domeka: *Pygmalion*. Ekitaldi aretoan, 19'30etan.
- Martxoak 21, barikua: *Master klown*. Pilotalekuan, 20'30etan.
- Martxoak 22, zapatua: *En tu onda*. Udaletxeko sarreran, 20'30etan.
- Martxoak 23, domeka: *Jojo*. Ekitaldi aretoan, 18'30etan. Umeentzat, euskaraz.
- Martxoak 28, barikua: *Izarrak ortuan*. Pilotalekuan, 20'30etan.



Zipiriñe ikastetxea txiker lotu da

Gazte gara, gazte!

Bizkaiko herririk gazteenak ikasgela gehiago eskatzen ditu 0 eta 3 urte arteko haurrentzat

Sopela Bizkaiko herririk gazteena dela zuetako askok jakingo duzue. Hori baieztatzeko, datu interesgarri batzuk jaso ditugu Udaleko Estatistika sailetik. Gaztetzat 40 urte baino gutxiagokoak hartzen baditugu, 6.152 gazte daude herrian. Gainera, zehatz 1971n jaiotakoak gehiago dira beste edozein urtekoak baino (240 pertsona).

Bestalde, 114 haur jaio ziren iaz Sopelan; honek esan nahi du ia hiru egunik hiru egunera ume bat jaio zela. Daturak

DATUAK

- Gaur egun, Sopelak **11.036 biztanle** ditu (5.594 emakume eta 5.442 gizon).
- % **55,75ek** berrogei urte baino gutxiago du: 6.152 lagunek, hain zuzen.
- Iaz, **114 umetxo** jaio ziren herrian.

tuek bitxikeria bat ezkututzen dute: antza denez, 102 urte dituen gizon bat bizi da herrian; orduan, bera izango litzateke sopoloztar zaharrena.

«Hurrengo legealdirako espero dute herriko eskola handitzea»

Aipatutakoak hainbat ondorio dakartza. Bat nabarmentzeko, irakaskuntzan daukana azpimarratuko genuke. Sopelan, 0 eta 3 urte bitarteko 350 haur inguru daude, Zipiriñe ikastetxeak barruan har dezakeen baino gehiago. Ume horientzako ikasgela gehiago egiteko eskatu du sarri Udalak Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailan, asko kanpoan gelditzen direlako aurrematikula egin ondoren. Hala ere, Zipiriñe ikastetxea handitzeko lanak datoren legealdian burutuko direla espero dute Sopelako agintariek. m

José María Sáez > boluntarioa “Hondurasera itzuliko naiz”



José María Sáez, Hondurasera joan zen egunaren bezperan

43 urteko sopoloztar honek badaramatza aste bi Hondurasera ekialdean da goen Once de Guanchías herrixkan. Hara joan zen martxoaren lehen bertoko eskola eta etxebizitza txiker bat berreraikitze helburuagaz. Irakurtzen eta idazten ikasteko metodo bat ere eroan zuen.

Lehen aldiz joan da José María Sáez 300 indigena baino ez dituen herri hartara eta bertan hilabete bat egin ostean etorriko da atzera Sopelara, baina “denak ondo urtetzen badu, ziur berriro joango naizela. Hurrengo bidaiari beste etxebizitza batzuk atonduko ditut”, esan zigun gogotsu Sáezek joan aurretik. Be-

ra Errioxako “Sembrando futuro” ize-neko GKEaren kidea da orain hiru urtetik hona.

Bere poltsikotik

José María Sáez berak dirua ipini behar izan du egitasmo hau burutzeko eta bidaia ordaintzeko. Hala ere, Sopelako Udalak emandako diru-laguntza biziki eskertu du, “gugan konfiantza izan duelako”. Hondurasen lan egiten duen “Sembrando futuro” erakundea lagundu gura dutenek, Ibercajakko ondorengo kontu korrontean sar dezakete dirua:

2085 5658 51 0330009294 m

ESAERA ZAHARREN TXAPELKETA, MARTXOAREN 29AN

Urtero legez Nikola euskaltegiak Esaera Zaharren Txapelketa antolatu du datorren martxoaren 29rako. Bi eta lau kide bitarteko taldeek har dezakete parte. Talde bakoitzari ehun euskal esaera zahar emango zaizkio, eta horiek buruz ikasi beharko dituzte. Martxoaren 29an bertan, goizez, esaera zahar horiekin lotutako bertsoak abestuko dira. Taldeek bertsoak zein esaeragaz lotuta dauden asmatu beharko dute. Goizeko irabazleek finala jokatuko dute Ander Deuna ikastolan, bertan egingo den bazkariaren ostean. Hor ere bertsoak egongo dira eta Fredi Paia eta Maialen Lujanbio arituko dira horretarako laguntzaile modura. Izena emateko epea martxoaren 21a arte egongo da zabalik, eta zazpi euroan izango da talde bakoitzeko. **Telefonoa: 94 676 48 76**

Erosketa etxera eroaten dogu!!

Ugari
supermerkatua

ORDUTEGIA

Lan egun eta zapatuetan: 9:00-14:00 / 17:40-21:00
Domeka eta jai egunetan: 9:00-14:00

Gatzarriñe 5, % 94 676 19 99 LARRABASTERRA

4 bide
pinturak



RIPOLIN
BONDEX
DYRUP

Loroño 2 • Tlf/Fax 94 676 29 92 • SOPELA
Iturribarria 3 • Tlf: 94 442 01 55 • BILBO



erakusketak

antzerkia

dj.ak

ALGORTA

LAIKAK
Taberna

Bentatxu, 2
48600 Sopela Tlf. 94.6760328

GOIZEAN

Gozoki eta prentsa, gutxi denik
Prentsa - Fruitu lehorrak - Aldizkariak - Litxarrierak

Orduña Mendatea 1 T: 430 22 13
GETXO T: 460 02 88
ALGORTA

ETXEKO? ELEKTROTRESNEN? KONPON -
Lacofris.s.l. SERVICIO
Y MARKA GUZTIAK
Y 24 ORDUTAN ERANTZUNA
Y 3 HILABETEKO GARANTIA
Y 25 URTEZ ZURE ZERBITZUA
& 94 430 52 00 Kasune, 18 • ALGORTA

Adi
lagun!

Kafe Antzokiak antolatzen dituen ekitaldietarako sarrerak lor ditzakezu. Martxoak 16a baino lehen UKra deitzen duten lehenengo 2 pertsonak bina sarrera lortuko

Martxoak 16: Olgetan haur jaia
Martxoak 26: The nomads eta Bummer.
Martxoak 27: Gaitzerdi Teatro.
Martxoak 30: Olgetan haur jaia.
Antzerkiola Imaginarioa.

Zeuk erabaki eta deitu!
94 491 13 37

Zuhaitz eguna

Martxoaren 29an Santa Anako zelaietan

Hirugarren aldiz, Zuhaitz Eguna egingo da Berangon, martxoaren 29an, hain zuzen ere. Ludotekako umeak eta gaztelekuko gazteak goizeko hamarretan irtego dira Berangoetako Kultur Etxetik eta ordu biak aldera bueltatuko dira.

Aurreko bi edizioetan Infernueta mendian egiten zen ekitaldi hau, baina guztiz landatuta dagoenez, aurten Santa Anako zelai bat aukeratu dute. Partehartzaileak arropa aproposak jantzita joan behar dira; bestalde, zuhaitzak, tresneriak, eta abarrak Udalak eroango ditu.

Sei eta hamasei urte bitarteko lagunak bilduko dira herriko Zuhaitz Egunean, eta guztira, Foru Aldundiak emandako 25 zuhaitz landatuko dituzte taldeka. m

SANTA ANA-N LANDATUKO DIREN ZUHAITZAK

- Haritzak, gereziandoak, pagoak, urkiak eta lizarrak



Etxe asko eraiki dira Berangon azken urte hauetan

Herria diseinatzen

Etorkizuneko Berango zelakoa izan behar den erabakitzea herritarren eskura jartzeko egitasmoa, abian

Udaletxeak hamar urte barruko Berango diseinatzeko plangintza ipini du abian. Horretarako, herritar guztien partehartzea lortzen ahaleginduko da, Miren Dobaran alkateak UKri esan dionez: *“Banan banan itaunduko zaie herritarrei zer gura duten herrirako, hainbat arlotan: hirigintza, ingurumena, kultura...”*.

Dobaranek dinoen legez, momentu egokia da hau plangintza itaunketa hori egiteko, esparru bat baino gehiegotan erabaki garrantzitsuak hartu behar direlako epe laburrean. *“Hirigintzan, esaterako, oraintxe esan behar dugu zer etxe mota eraikiko den. Azken batean, zera erabaki behar da: zenbat izan gura dugu?”*.

Herri “bi”

Plangintza hau udaletxean egindako gogoeta batetik dator: *“Herria asko hazi da azken urteotan. Dagoeneko 5500 biztanle dauka Berangok, eta udal jarduna aldatu*

egin behar da. Lehen, soilagoak ziren udaleko gaiak”. Hain zuzen ere, plangintzaren helburuetako bat “betiko” berangoztarren eta azken hazkundeagaz etorritakoen arteko harremana sendotzea da.

Zertaz egin behar da berba?

Plangintza egitean herri osoa ordezkaturako egotea gura du Udaletxeak: elkarre soziaz, kulturalak, alderdi politikoak, herritar xeheak... *“Auzo guztietako nor edo nor egotea gustatuko litzaiguke”*, dio alkateak.

Hiruzpalau hilabeteko gogoeta egingo da, eta azken emaitza osoko bilkura batean eztabaidatuko da. Alde teknikoa enpresa pribatu baten esku utziko dute, *“herritarren gidaritzapean behar egingo duena”*.

Enpresa horren lehen lanetako bat herriko etxe guztietara itaun-sorta bat biltzea izango da. Horretan, *“plangintzak jaso beharreko gaiak zeintzuk diren galdetuko zaie herritarrei”*. m

Sei Herri kultur elkarteak 25 urte euskal kultura sustatzen

Badago Berangon Sei Herri izeneko mendi bat, bere tontorretik eskualdeko sei herri ikusi egin direlako; mendi horren izena hartuz, herrian kultur elkarte bat sortu zen 1978. urtean. Beraz, Berangoko Sei Herri kultur elkarteak zilarrezko ezteiak ospatzen ditu aurten. 25 urte *“ekitaldi kulturalak bultzatzen eta euskal kultura osatzen dituzten ezaugarriak zabaltzen”*, diosku Martxelo Álvarezek, elkartearen zuzendaritza-batzordearen kideak.

Hamaika ekitaldi burutu dituzte elkartetik, baina duda barik, urrian edo azaroan urtero antolatzen den ibilaldia da lagun gehien erakartzen duen jarduerak. Sei Herriren historian egon dira beste ekimen arrakastatsuak: Latinoamerikako zinearen zikloa, txirotasunaren inguruko astea, eta Irlandako bake prozesua zela-eta egin zen hamabostaldia, besteak beste.

Geroari begira, eta Martxelo Álvarezek berbetan, *“zinema ziklo bat antolatu nahi*



Martxelo Álvarezek 20 urte daroaz Sei Herri

dugu, ‘Prestige’ edo Iraken gaineko hitzaldiak eta bankapaluetan ibiltzeko ikastaro bat ere”.

Non daude?

Gaur egun, Sabino Arana kalean, 13.ean, dagoen Sei Herri kultur elkarteak 45 kide dauzka eta Berangoko tankera guztietako taldeentzat atekak zabalik dituzte. m

Harremanetarako: 94 668 03 50

EMAKUMEEN JARDUNALDIAK

Martxoan zehar Emakumeen Jardunaldiak egiten ari dira Berangon, hilaren 8an Emakume Langileen nazioarteko Eguna izan dela eta. 6an eta 13an seme-alabek banaketa baten ondoren pairatzen duten egoeraz eta emakumeek kirolean daukaten rolaz berba egin da, eta hemendik hilaren amaierara beste mahainguru bi egingo dira. 20an berdintasuna-politikaren gainean arituko da Txaro Arteaga Emakundearen zuzendaria, eta 27an, berriz, Inmaculada Loroño senatariak tratatu txarrez berba egingo du. Ekitaldiok Berangoetako kultur etxean egingo dira arratsaldeko 6'30etatik aurrera.

Txaro Arteagak, Emakundearen buru denak hitzaldia eskainiko du hilaren 20an



aldai

TAPIZTEGIA
DEKORAZIOA
ERAKUSKETA
ETA TAIERRAK

Basagoiti etorbidea 32
Tf: 460 90 31
48990 ALGORTA

VASA

20º ANIBERSARIO URTEURRENA

AENOR ER Empresa Registrada ER-1891/2001
AENOR GA Gestión Ambiental CGM-02/006

KLIMATIZAZIO
INGENIARITZA
INSTALAZIOA
MANTENIMENDUA

Otxandategi tar Simon 114
48640 Berango, Bizkaia
tel. 94 668 15 51
Taxa. 94 66829 92
e-mail: vasa@euskalnet.net



TXIBERRI edantokia frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ
T: 94 676 07 15



basartena Tel. 946 76 11 28
URDULIZ

udondo taberna eguneko menua eta afariak

Lehendakari Agirre, 2
T: 94 463 00 45 - LEIOA

BEHIN BATEAN

LIBURUDENDA

Kasune, 24 ALGORTA
Tf. eta Faxa: 94 430 74 03

Ajuria taberna

Andrés Cortina 2
ALGORTA



[herriak]

BARRIKA

Mende betea ospatzen



María Errazkin (98 urte), Josefa Muñoz (101) eta Lola Errazkin (102) oraindik sasoi betean.

Umore onez eta osasuntsu. Horrela igaro zuten Josefa Muñozek eta Lola Errazkinek euren urtebetzea astearte-inauteri egunean. 101 eta 102 urte, hurrenez hurren, bete zituzten Barrika Barri zahar-etxeke andre bi hauek; eta egunak merezi zuen bezala, lagunek, senitartekoek eta langileek jaitxo bat eskaini zieten.

ESKUALDEA

Bilbo-Bilbo Klasikoa Uribe Kostatik



Martxoaren 23an (domeka), Bilbo-Bilbo zikloturista klasikoa abiatuko da Bizkaian barrena, goizeko 9etatik aurrera. XV. edizio honetan, txirrindulariek gehenez sei orduko denbora-tartean bete beharko dute 114 kilometroko ibilbidea garaikurrik eskuratu nahi badute. Bilbo-Bilboren partehartzaileek gure eskualdean egingo dituzte lehen 60 kilometroak. Parte hartu gura dutenek Bilboko Nazioarteko Erakustazokara joan beharko dira izena ematera, martxoaren 20tik 22ra (arrastiko 5etatik iluntzeko 8ak arte) edo hilaren 23an, goizeko 7etatik hasita. m

PLENTZIA

Turismo Bulegoa zabalik

Martxoaren 5ean zabaldu zuten Plentziako Turismo Bulegoa. Goñi Portal etxean (elizaren atzealdean) dago, eta herriagaz zerikusia daukaten hainbat konturen gaineko informazioa emango du: historia, ingurumena, gastronomia, lo egiteko tokiak, leku interesgarriak.

Bulego berria egunero egongo da zabalik, astelehenetan izan ezik. Martitzenetik barikura, goizeko 11etatik eguerdiko 1a arte eta arratsaldeko 4'30etatik 6'30ak arte; zapatu eta domeketan, berriz, goizeko 11etatik eguerdiko 1'30ak arte eta arratsaldeko 4'30etatik 8ak arte. m

Martxoak 15-29

[agenda]

Zuon ekitaldiak iragartzeko • Posta elektronikoa: aldizkaria@euskalnet.net • Tel.: 94 491 13 37 • Faxa: 94 491 58 31

ANTZERKIA

GETXO

- ▶ "10". Getxo Antzokian. Martxoak 15, zapatua. 19:30etan eta 22:30etan. Juan Luis Galiardorekin.
- ▶ www.comunicando.com. Getxo Antzokian. Martxoak 22, zapatua. 20:00etan. *Arakean* konpainiaren eskutik.
- ▶ **La danza de la mentira**. Getxo Antzokian. Martxoak 29, zapatua. 20:00etan. *96 unicornios* konpainiaren eskutik.
- ▶ **Como niños**. Algortako Bost tabernan. Martxoak 18, martitzena. 21:30etan. *Oliver Productions*-en eskutik.
- ▶ **Bakarrizketa: Loren Sastre**. Algortako Satistegi tabernan. Martxoak 20, eguena. 21:30etan. *Oliver Productions*.
- ▶ **Como niños**. Erromoko Tropicana-n. Martxoak 20, eguena. 21:30etan. *Oliver Productions*.
- ▶ **Bakarrizketa: Loren Sastre**. Algortako Bost tabernan. Martxoak 25, martitzena. *Oliver Productions*.
- ▶ **Fibromas**. Algortako Satistegi tabernan. Martxoak 27, eguena. 21:30etan. *Oliver Productions*.

LEIOA

- ▶ **Las insustanciales**. XCaret-en. Martxoak 22, zapatua. 24:30etan. *Oliver Productions*.

ERAKUSKETAK

BERANGO

- ▶ **J.R. Guerraren akuarelak**. Erakustaretoan. Martxoaren 17tik 26ra.

GETXO

- ▶ **Juana Sáenzen argazkiak, margolanak, bideoak...** Erromoko erakustaretoan. Martxoaren 17tik 29ra.
- ▶ **Marrodán, 50 años de poesía**. Getxo Antzokian. Martxoaren 19tik 23ra.
- ▶ **XXI. mendeko idazle berriak**. Algortako erakustaretoan. Martxoaren 24tik apirilaren 12ra.

LEIOA

- ▶ **Rosalía Pérezeren pinturak**. Sakoneta kultur aretoan. Martxoaren 17tik 28ra.

HITZALDIAK

GETXO

- ▶ **La otra historia de la música**. Areetako Andrés Isasi musika eskola-



▶ MUSIKA

Maite Idirin eta Gotzone Higuera, Aretan

Martxoaren 17an, Emakumearen Jardunaldien barruan, Gotzone Higuera (pianoa) eta Maite Idirinek (ahotsa) folk garaikide emanaldia eskainiko dute Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan. Idirin 1968an hasi zen abesten, eta orduetik ibilbide oparoa egin du. Higuera, berriz, eskarmentu handia dauka hainbat abeslari eta musikariren laguntzaile modura, Euskal Herrian nahiz Belgikan.

Non: Andrés Isasi • **Noiz:** martxoak 17, astelehena • **Ordua:** 20:00

lan. Martxoak 24, astelehena. 18:30etan. M^a Luisa Ozaitak emana.

LEIOA

- ▶ **Irola Irratia, 15 urte uhinetan**. Udondo gaztetxean. Martxoak 16, domeka. 20:00etan.

MUSIKA

BARRIKA

- ▶ **Malcom Scarpa**. Golfo Norte-n. Martxoak 15, zapatua. 23:00etan.
- ▶ **Tres Hombres**. Golfo Norte-n. Martxoak 22, zapatua. 23:00etan.
- ▶ **Trago largo**. Golfo Norte-n. Martxoak 29, zapatua. 23:00etan.

GETXO

- ▶ **M^a José Martín Benito pianojolearen kontzertua**. Areetako Andrés Isasi musika eskolan. Martxoak 24, astelehena. 20:00etan.

GETXO

- ▶ **Gatibu eta Sorkun**. Algortako Portu Zaharrea. Martxoak 22, zapatua. 20:00etan.

IRTEERAK

ERANDIO

- ▶ **Larre mendira (Izaskun, Gipuzkoa) irteera**. Martxoak 23, domeka. Mendigoizaleak elkarrea.
- ▶ **Murgiara mendi irteera**. Martxoak 23, domeka. Atxazpe mendi taldearen eskutik.

LEIOA

- ▶ **Uraiaga herri okupatura mendi martxa**. Martxoak 23, domeka. 12:00etan. Udondo gaztetxea.

ZINEMA

BERANGO

- ▶ **Scooby Doo**. Ekitaldi aretoan. Martxoak 16, domeka. 17:30etan. Umeentzat.

GETXO

- ▶ **Stuart Little II**. Getxo Antzokian. Martxoak 16, domeka. 12:00etan, 17:00 eta 19:00etan. Umeentzat.
- ▶ **Salvoconducto**. Getxo Antzokian, martxoaren 19an (eguztzena), eta Areetako Gran Cineman, martxoaren 20an (eguna). Biak 20:00etan.
- ▶ **Los Tenenbaum**. Getxo Antzokian. Martxoak 21, barikua. 22:00etan.
- ▶ **Jimmy Neutron**. Getxo Antzokian. Martxoak 23, domeka. 12:00etan, 17:00etan eta 19:00etan. Umeentzat.
- ▶ **Camino a la perdición**. Getxo Antzokian, martxoaren 26an (eguztzena) eta Areetako Gran Cineman, martxoaren 27an, (eguna). Biak 20:00etan.
- ▶ **Quitting**. Getxo Antzokian. Martxoak 29 (barikua). 22:00etan.

BESTERIK

ERANDIO

- ▶ **Hirugarren Joane Somarriba Zikloturismo martxa**. Martxoak 16, domeka. *Unión Ciclista Erandiok* antolatuta.

GORLIZ

- ▶ **Peio Añorga ipuin kontalariaren emanaldia**. Erakusketa Aretan. Martxoak 29, zapatua. 18:30etan.

LEIOA

- ▶ **Afrikanen gaineko filmia emanaldia**. Udondo gaztetxean. Martxoak 19, eguztzena. 19:00etan.

BILBO

- ▶ **Lagun artean kantari**. Kafe Antzokian, martxoak 19, eguztzena. 20:00etan. Kantuan egiteko saio irekia

Zenbat Gara elkarte

BILBO
San Vicente 2 48001 BILBO
Tel: 94 424 46 25 Fax: 94 424 28 02

ONDARROA
Iparragirre 10 48700 ONDARROA
Tel: 94 683 41 41 Fax: 94 613 44 43
www.kafeantzokia.com

Kafe ANTZOKIA



Hezetasuna auzoa, Algorta



Algorta, Alango ingurua



Larrabasterra



Kurtxe auzoa, Berango

Baimen eske

Porlanezko dorre erraldoien artean isil-isilik, ezin apalago dirauten etxe askotxo aurkitu daitezke Uribe Kostan. Zelan edo halan, "progresoari" aurre egiten jakin izan dute hain urrunekoa ez den garai bateko bizimoduko adibide hauek. Gorantza begira dauden pisu-eraikin anonimo eta grisen artean ia ezkutaturik, egun bat gehiago zutunik egoteko baimen eskean daudela esan liteke.

Argazkiak: **Asier Mentxaka**



Algorta



Leioa



Lamiako



Algorta, Basagoiti kalea

[berbetan]

Globalizazioaren aurkako ikonoa gurean izan da egunotan, *Jai Alai Katumbi Express* goitzenaz kontzertu *klandestinoak* eskaintzen. Virgin multinazionalarekin harremanak apurto ostean, Radio Bembarekin eta Fermin Muguruzarekin egin du bira txiki hau. Makrojaialdietatik urrun, areto txikiagoetan ibili dira, lagunarteko festa giroan. Bilboko eta Ondarroako Kafe Antzokietan izan da, fan berezi batek lagunduta: sortzez bilbotarra den bere ama. Aretoen neurria apala zenez gero, promoziorik ez zuten nahi, beharrik ere ez. Hala ere, Euskal Herrian emandako azken kontzertuaren bihamunean, Ondarroan, Manurekin solasteko aukera izan genuen, gurean eskaini zuen elkarrizketa bakarrean.

Manu Chao

Bilbotar klandestinoak

Testua & argazkiak: **Jabi Zabala**

—Nola sortu zen *Jai Alai Katumbi Express*?

—Fermin aspalditik ezagutzen dut eta beti izan dugu zerbait elkarrekin egiteko asmoa, baina bakoitzak bere planak zituenez, kolaborazio mailan geratu izan da kontua beti, Negu Gorriak-ekin eta. Orain sekulako aukera zegoen, Ferminen taldekide bat haurdun egonik ezin zuelako bere bandarekin atera. Gu ere zerbait berria hastekotan gaude eta aukera ikusi genuen: orain edo sekula ez, honelako aukera bat ez da berriz egongo eta.

—Nolakoa da bira zuekin?

—Lehenengo lana, gero parranda. Eguneke inportanteena kontzertua da, baina lanean ere disfrutatuz. Urtero *jostailua apurtzen dugu*, taldea desegiten dugu, ohitura hutsari ihes egiteko. Lokal txikiak bira egiten dugu, prestaketa moduan; behin rodajea eginda jaialdi handietan jotzea txikikeria baita. Egunotan parranda ikaragarriak egin eta itzel pasatu dugu.

—Galiziatik zatozte, nola aurkitu duzue hura?

—Negargarri. Urtarril hasieran ere joan nintzen Galiziara, egoera ikusteko. Arrantzale herrietako jendeak argi du Kanarietara joan beharko duela baina ez da hain erraza. Askok alde egingo dute baina Argentinako bi milioi galiziar daude itzultzeko gogoz. Beste aukera protesta egitea da. Marea belt-

garela. Batzuetan iruditzen zait fikziozko film bat ikusten ari naizela. Nahi dutena egiten dute eta, gainera, irailaren 11z geroztik dena da islamista, terrorista... Horrela jarri gaituzte, gurekin edo gure kontra. Bartzelonan ere, okupak ETakoak ei dira. Prentsa guztiz itsututa dago. Esaterako, Katalunian zortzi musulman atxilotu dituzte, Bin Laden-en taldekoak zirela esanez.

“Ez naiz mundua aldatzeko gai sentitzen, iraultza txikiak sinisten dut”


zak jende askoren kontzientzia piztu du, tabernetan-eta ikusi dut PP bozkatzaren duten asko ikututa daudela. Jendea amorrotuta dago baina dirulaguntzen bidez isildu nahi dute eta asko isiltzen ari dira, kofradiak, arrantzaleak...

—EGUNKARIAren itxierak ere bertan harrapatu zaitu. Zer iruditzen zaizu?

—Aluzinatze moduko sasoi batean sartu

Denok ikusten genuen *pringao* hutsak zirela, baina albistegietan esaten ari direna da “arriskua ez dago kanpoan, etxean bertan baizik”. Frantzian ere, EGUNKARIA itxtearen *aluzine* bera daukagu, sorpresaz sorpresa goaz. Duela urtebete esan izan balidate Chirac-en alternatiba Le Pen izango zela ez nuen sinistuko.

Manu Chao Bilboko Kafe Antzokian duela gutxi eskaini duen kontzertuetako batean >



uk

orain
hamabostean
behin

aldizkaria
etxean
jaso nahi
baduzu

94 491 13 37

dirulaguntzak

Boluntzarreta
BBK 2095 0121 10 9102483676
sartu zure laguntza gure kontu zenbakian

UK Urbe Kostako Aldizkaria

171 posta kutxa / Amezti 6, 4. solairua 5. bule-
goa 48990 Getxo / ukaldizkaria@telefonica.net
tel.: 94 491 13 37 / faxa: 94 491 58 31
bulego ordutegia: 08:00 / 15:00

[berbetan > Manu Chao]

—Zer egin dezakete musikariek honen au-
rrean?

—Ez dakit, bozgorailua eskuan dugunok,
ba... hitz egin. Baina gero manipulatu egi-
ten zaituzte. Sekulako ekonomistak izan
beharko genuke, azken finean diruaren
banaketa delako kontua eta ez naiz mundua
aldatzeko gai sentitzen. Iraultza txikietan
sinisten dut, ordea. Gazte askok aholkua es-
katzen dit eta nik auzo mailan zeozer egite-
ko esaten diet. Mundu mailan, otsailaren
15eko gerraren aurkako manifestazioak se-
kulako *subidoia* eman zidan, baina ez dut

Ortegatarrak, noski. Zatozte, zerbait dauka-
gu zuena, bertan utzi zenutena". Aiton-
amonon mahai-ontziteria, mantelak eta
horrelakoak zituzten oraindik gordeta,
haiak ezin izan zuten-eta, dena eraman.
Aitonak, bizirik zela, ez zuen sekula atzera
etorri nahi izan. Hil ondoren bere errautsak
ekarri eta Gorbeiko tontorrean haizatu
genituen.

—Zu, berriz, Parisen sortu zinen.

—Txikitatik oroitzen naiz nola gure etxean
bazkariak eta festak egiten ziren. Jende asko
etortzen zen, argentinar erbesteratuak eta.

“Horrela jarri digute, gurekin edo gure kontra. Bartzelonan ere, okupak ETAkoak ei dira”

uste gerra saihestea lortuko denik. Auzo mai-
lan, ordea, emaitzak argiago ikusten dira.

—Ama bilbotarra duzu sortzez.

—Bai, Artxandakoa, baina gerra zela eta,
hiru urte zituela alde egindakoa. Aitonak
telefono konpainian egiten zuen lan, eta
gerran, hiriak faxisten eskuetan jausi ahala,
telefono zentralak sabotatzea zen bere zere-
gina. Bilbo jausi zenean alde egin behar izan
zuen familiak. Aitonak hemendik ihes egin
eta Errepublikaren aldean jarraitu zuen,
harik eta Valentzia jausi arte. Kontatu dida-
tenez, azkenengo barkuan atera zen.
Orduan Aljeriara joan zen eta han kontzen-

Aita galiziarra dut, kazetaria. Pianoa jotzen
zuen, baina eskuetako artrosia zela-eta, utzi
egin zion. Artrosia bazuen ez dut inoiz uler-
tu nola utzi zezakeen pianoa idazmakinari
ekiteko.

—Musikarena hortik datorkizu?

Tira, aita saiatu zen gu pianoa ikastera bult-
zatzen, solfeoarekin eta abar, baina guk fut-
bola nahiago genuen. Oraindik ideia handi-
rik ez dut (solfeoz), baina oinarri batzuk
jakitea ondo etorri zait.

—Sorkuntzan autoprodukzioaren aldekoa
ei zara.

—Bai, grabazio aretoak amaitu dira niret-

“Jendea amorratuta dago [Galizian] baina dirulaguntzen bidez isildu nahi dituzte eta asko isiltzen ari dira”

trazio esparru batean eduki zuten denbora
batez. Gerra ostean familia bertan batu zen,
eta ama, esaterako, Aljerian hazi zen.

—Sustraien bila etorri zen, baina, duela
gutxi.

—Bai, duela lau-bost urte ama Bilbora itzuli
zen. Ez zuen ondo gogoratzen, baina
azkenean Artxandako etxea aurkitu zuten.
Bizilagun berriak zeuden bertan, baina
auzokoek gogoan zuten gure familia: “Bai,

zat. Egun, teknologiari esker dirutza ederra
aurreztu dezakezu. Etortzen zaizkidan gaz-
teei eta, dirua grabazio aretoan xahutu barik
ordenagailua erostea gomendatzen diet.
Gaurko banda batean, baxu-jole edo bate-
ria-jole ona edukitzea bezain garrantzitsua
da *manitas* bat egotea. Grabazio aretoek
ordutegiak dituzte, baina *duendea* berak
nahi duenean etortzen zaizu, sarri ez areto-
an grabatzeko sasoiari, baizik eta etxean zau-

dela. Ordenagailuarekin momentuan egin
dezakezu grabazioa, eta biharamunean ent-
zunda ez bazaizu gustatzen, dudarik gabe
hartu eta ezabatu. Ezabatzen jakitea oso
garrantzitsua da.

—Orduan nolako da zure sorkuntza pro-
zesua?

—Esan dizudan legez, nik estudioa gaine-
an daramat, motxilan. Ideia bat datorkida-
nean makina piztu eta berehala grabatze-
ari ekiten diot. Gauza bat grabatzen hasi
eta, gauaren amaieran, guztiz bestelako
gauzak grabatuz amaituz gero, saio ona
izan dela esan dezakezu. *Clandestino*-tik
hona horrela egiten dut.

—Aurtengoa musika-multinazionalen azke-
na izango dela diote. Esaterako, Sony erral-
doiaren musika arloa Sony bera kaltetzen ari
da, askoz gehiago irabazten baitu MP3ak
entzuteko aparailuak salduz.

—Hori da kapitalismo basatiak dakartzan
makrofusioen arazoa. Multinazionalak gaur
egun hibrido erraldoiak dira eta ez dute
aurrera egingo, kolapsoa izango dute. Ez
bakarrik musika saltzen dutenek, beste
askok ere bai.

—Pirateriak musikari kalte egiten dio?

—Musikaren arloan pirateriaren inguruko
eztabaida faltsua dago. Diskogintza hondat-
zen ari dela diotenean nik barre egiten dut:
erraldoiei etekinak urritzen ari zaizkie, ez
musika hondatzen. Gero, SGAEn eta
Madrilen hor dabilta denak “pirateoaren
kontra”, bilerak egiten... Baina pirateria
hortxe dago eta ezin izango dute gelditu.

—Zer egin behar dute diskoetxeek?

—Pirateriari aurre egiteko bideak oso errazak
dira, aplikatu ditazela. Diskoen salneurria %40
jaitsiz gero pirateriaren aurrean lehiakorrek
izango lirateke, gehiago salduko lukete.

—Top-mantaren aldekoa zara?

—Eztabaida guztietan pirateriaren alde egi-
tea leporatzen didate. Ez da horrela, nik
*etxe*ko pirateria defendatzen dut, baita *auzo*-
ko pirateria ere: okinari ogia erosten diogun
bezala, auzoan gazte bat baldin badago bil-
dumak osatzen dituen, bada, harengana
joatea eta *zer daukazu gau?* galdetzea.
Sakelean 20 euro dituen gazte batek, CD
bat eskuratu nahi badu, oso inuzentea izan
behar du diskoa erosteko, saretik jaitsi beha-



Goian, Manu Fermin Muguruzarekin Kafe Antzokian. Behean, Radio Bemba taldeko kideekin Ondarroan.

“Hainbeste kexatzen dira pirateriaz... Euren legeak dira: eskaintza eta eskaria”

rean. Ordea, pirateriaren %70 mafioso da
eta hori da niri gustatzen ez zaidana. Oso
polita da senegaldar bati hondartzan CD
bat erostea, baina tipo hori mafia baten
esklabu da, dirua ez du berak eramaten.
Horrela erostean mafia hori laguntzen ari
zarela jakitun egon behar duzu. Saltzailea
esplotatua dago, Almerian tomateak biltzen
dabilena bezala.

—Zelan geldi daiteke hori?

—Ez dut ulertzen zergatik ez duten geldit-
zen, hainbeste diote SGAekoek pirateria
gelditu behar dela, eta... ez dakite non dau-
den fabrikak? Mesedez! Pixkat bilatuz gero
kobazulo horiek bi minutuan topa ditzake-
te eta! Zergatik ez dute egiten? Ez dakit.
Hainbeste kexatzen dira pirateriaz... Azken
baten euren legeak dira: eskaintza eta eska-
ria. Jendeak merkeena erosten du. Nik dio-
danez, *la pepicola que se muerde la cola.* m

Egunkaria aurre

Martxoaren batean Uribe Kostan euskalgintzan gabiltzan elkarteok (UK Uribe Kostako aldizkaria, Bizarra Lepoan Euskara Elkarte, Berbots Erandion Euskaraz eta ALBE Algortako Bertsolari Eskola) "bai euskarari, bai Egunkariari" lelopean elkartze isila deitu genuen Algortan Euskaldunon Egunkariaren itxiera salatzen. Ehunka lagun elkartu ginen han. Ondoren azpian dagoen manifestua irakurri zen.

Egunkaria behar dugu

Euskaldunon Egunkaria itxi dutela eta, agiri hau sinatzen dugun euskara elkarte eta herri aldizkariak honakoa adierazi nahi dugu:

- Euskaldunon Egunkaria itxi izana euskararen, euskal prentsaren eta adierazpen askatasunaren aurkako eraso da.
- Dei egin nahi diegu euskalgintzari eta euskal gizarte osoari eraso larri hau salatzera.
- Euskararen normalizazioaren eta euskal prentsaren alde lanean jarraitzeko konpromisoari tinko utsiko diogu.
- Euskal Herriak euskarazko egunkaria behar du, ezinbesteko tresna baita gure hizkuntzaren normalizaziorako. Euskaldunon Egunkariako langileak euskarazko egunkaria kaleratzen jarraitzeko asmoa dute. Beraz, euskal herritar guztien laguntza behar dute. Ildo horretatik, guk ere laguntza eskaini eta konpromiso irmoa adierazi nahi diegu, euskarak egunero eta Euskal Herri osoan ahotza izan dezan.

Denok gara **Egunkaria**



MANIFESTUARI ATXIKIMENDUA ADIERAZI DIOTEN ELKARTE ETA KOMUNIKABIDEAK

UK Uribe Kostako Aldizkaria (Getxo), Bizarra Lepoan Euskara Elkarte (Getxo), Berbots Erandion Euskaraz (Erandion), Irutxulo (Donostia), Bagera Donostiako Euskaltzaleen Elkarte (Donostia), Hitzaro (Ordizia), Manuel Larramendi Kultur Bazkuna eta Aiumi Aldizkaria (Andoain), ..Eta Kifito! Euskara Elkarte eta Astekaria (Eibar), Lagatzu Euskara Elkarte (Zamudio), Aikor Aldizkaria (Txorierrri), Anboto Durangaldeko Astekaria (Durangaldea), Arrikikili Larrabetzuko Euskara Elkarte (Larrabetzu), Titi-Ttapa aldizkari eta telebistako langileak (Bera), Irun Iruten Euskara Elkarte (Irun), Lau Haizetara Euskaldunon Elkarte eta Aldizkaria (Errenteria-Oretera), Berton aldizkaria (Mahatserria), Berbaizu Euskara Elkarte eta Prest aldizkaria (Deustu), Pil- Pilean Euskara Elkarte eta Aldizkaria (Soraluze), Euskal Birusa Euskara Elkarte eta Drogetenlurri Aldizkaria (Ermua), Txabilipuri Euskara Elkarte (Arrasate), Maxixatzen Euskara Elkarte eta Aldizkaria (Azkoitia), Elgoibarko Izarra Euskara Elkarte eta Barren Astekaria (Elgoibar), Karkara Euskara Elkarte (Orio), Txaparro Kultur Elkarte eta Txaparro aldizkaria (Zarautz), Goierriarrak Kultur Elkarte (Ordizia), Asapala Kultur Elkarte (Mahatserria), Dobera Euskara Elkarte (Hernani), Jardun Euskara Elkarte (Bergara), Goiema Komunikazio Zerbitzuak (Debagolena), Karrikaluzeko Euskara Elkarte (Atarrabia), Orratz Kultur Elkarte (Lezo), Euskarabila Euskara Elkarte (Basauri), Loramendi Euskara elkarte (Aretxabaleta), Danbolin Zulo elkarte (Zestoa), Arrasate Euskaldun Dezagun-AED elkarte (Arrasate), Berbaro Euskara Elkarte (Durango), Uztartzen Euskara Elkarte eta Uztartza Aldizkaria (Azpeitia), Topagunea Euskara Elkarten Federazioa

Inauteriakdi e

Argazkiak: Asier Mentxaka

Aurreko UKn inauteriak bazetozela esan genuen. Orain, zoritxarrez, joan egin zaizkigula esan behar dugu. Guk datorren urtera arte berriro ikusiko ez diren irudi horiek harrapatu izan gura ditugu, zelan edo halan. Kalera irten gara, kamera eskuetan, alaitasun momentuok betikotzeko asmoz. Leioako Betiko ikastolan egindako jaialdian egon ginen; Parangoko zantantzarrakaz bere bai, joareak lotzen zituzten bitartean, eta gero Getxon zehar egin zuten erakustaldian; eta, azkenik, Algortako kaleetako giroan murgildu ginen, orain zuoi erakusteko.





zineeskola

Oskar Fernández

Zinema eta kritikaren garapena? (I)

Gure artean, bai hemen eta bai leku guztietan, oso hedatuta dago oraintxe aipatuko dudan ohitura edo jarrera: film bat ikusi ondoren gure iritzia adierazi behar baldin badugu, gehienetan, bizpahiru hitzez edo esaldi laburtxo huts batez adierazten dugu ikusitako filmak sortu digun iritzia, eta hizketa aurrera ez baldin badao, galde-tu duenak oso ikuspegi murrizta jasoko du gugandik. Nire uste apa-lean, ohitura edo jarrera hau guztiz aldatu beharko genuke bi arrazoi-rengatik: alde batetik, zinema oso jarduera konplexua da, eta ez da batera zentzuzkoa, ezta hurrik eman ere, bi hitzetan laburtzea, hitz hauek oso adierazgarriak izan arren. Beste alde batetik, eta niretzat hau da inolako zalantzarik gabe garrantzitsue- na, gure iritzia kaleratu baino lehen- nago ahalegin analitiko egin behar- ko genuke. Zinema aretoan gaude- nean pantailatik datorkigun mezua- ren aurrean jarrera aktiboa eduki arren, mezua irudiz eginda dago- nez gero, zuzen joko du gure entze- faloaren atal sentikorrean. Horre- xegatik da hain laburra eta sentsa- zioei lotua gure barruan sortutako iritzia, aipatutako ataletik sortu bai- ta. Filma ikusiz gero hausnarketa analitiko egin baldin badugu, alde batetik iritzia askoz aberatsa- goa izango da eta beste aldetik, eta hemen dago gakoa, daukagun kriti- ka-gaitasuna hobetu egingo dugu apurka-apurka.

Eta denok dakigunez, ezagupe- nak eta baliabide intelektualak edo- nora transferitu daitezke. 4

zurre publizitatea hemen

94 491 13 37

Isabel Coixet Getxon

Zuzendari katalanak **Mi vida sin mí** pelikularen gainean egingo du berba martxoaren 20an

Martxoaren 7an estreinatu zen (bai ja- torrizko bertsioan bai gaztelaniazkoan) Isabel Coixet Bartzelonako zinemagilea- ren film berria, *Mi vida sin mí*, alegia. Baina lehenago ere ikusteko aukera eduki genuen, Areetako Gran Cinemak bota zuelako. Aurre-estreinaldi horretara joate- rik izan ez zuenez, Coixet-ek hitzaldi bat emango du Getxon martxoaren 20an be- re laugarren film luzearen gainean berba egiteko.

«Filmak oso harrera ona izan zuen Berlingo Zinemaldian»

Mi vida sin mí (edo *My life without me*) Kanadako Vancouver hirian filmatu zen eta Isabel Coixet-ek ingelesez egiten duen bigarren pelikula da. Gainera, ha- rrera ezin hobea izan zuen orain gutxi amaitu den Berlingo Zinemaldian, ber- tan Alemaniako Zinematheken Elkartea- ren saria jaso zuen-eta.

Film sentibera honen aktoreak, Sarah Polley, Amanda Plummer, Scott Speed- man eta Leonor Watling dira, besteak beste, eta minbizi sendaezina daukan 23



Isabel Coixet eta bere azken filmaren kartela

urteko ama gazte baten istorioa kontatzen digute. Gelditzen zaizkion azken bi hila- beteetan ordura arte egin ez duen guztia egin gura du; beraz, gazte horrek begiak zarratu barik onartzen du bere heriotza. *“Bizitza laburra da eta bete-betean bizi behar da”*, hori da hain zuzen ere *Mi vida sin mí* pelikularen mezua. m

BERE FILMAK

- “Demasiado viejo para morir joven” (1989)
- “Cosas que nunca te dije” (1995)
- “Los que aman” (1999)
- “Mi vida sin mí” (2002)

Ez galdu > “Road to perdition”

Zine Kluba • Non: Areetako Gran Cinema eta Getxo Antzokia • Noiz: martxoak 26 eta 27 • Ordua: 20:00



Film honen atzean Sam Mendes britainiar zuzendaria dago. Hau da berak zuzendu duen bigarren filma. Lehenengoarekin, “American beauty”, zuzendaririk hoberenaren Oscar saria jaso zuen. Bigarren istorio honetan gangster talde baten gorabeherak eraman ditu pantailara. Filmak komiki batean dauka oinarria eta genero honek eskatzen dituen ezaugarri guztiez dago apainduta. Hogeita hamarrek hamarkadan Estatu Batuek zuten giro gogor eta latzean dago kokaturik kontakizuna, eta pertsonaiak irlandar mafioso baten eraginpean mugituko dira. Aipatutako lehenengo filmak Mendesez gidoi bikaina izan zuen, eta honetan bereziki aipatu behar dira aktoreen zuzenketa, lekuen deskribapena eta argazkigintza, bai eta kamera erabiltzeko modua ere. Bere bigarren filma baino ez bada ere, bikaina du planoen konposaketa eta erabilerpena.

Argazkian, filmaren kartela

Erradiografia > Zuldar



Nondik dator izena: “Izen mitologikoa da, baserritarrek omen zuten jainkoa zen Zuldar”. **Jaio ziren:** “1995. urtetik gabiltza, ha- la ere taldea apurka-apurka sortu zen. Esko- lan ezagutu genuen elkar, tontakeria mo- duan hasi ginen, eta azkenean taldea sortu zen”. **Taldeko kideak:** Urtzi Barceló (gita- rra), Ugaitz Aguilar (gitarra), Egoitz Urru- tia (baxua), Egoitz Gorbea (bateria) eta Alain Gutierrez (ahotsa). **Gustukoa dute:** Euren musika sailkatzeko eta egiteko or- duan Zuldarrekoek “death melodikoa” egi-

ten dute. **Diskografia:** Datorren astean eu- ren maketa kalera aterako da eta mila ko- pia inguru edukiko dituzte saltzeko prest. **Besteak beste jo dute:** Sopolako jaietan, Areetako jaietan, Mutrikuko gaztetxean, Bilborock aretoan, Kaos aretoan... **Euskal musikaren egoera:** “Mugitu behar zara zer- bait lortzeko baina ez da hain zaila kont- zertuak ematea eta taldeok egiten dugun musika entzutea. Beti edukiko duzu ezagu- nen bat kontzertu bat antolatzeko aukera ematen dizuna”. m **649 42 04 06 (Urtzi)**

diskoak

Come away with me
Norah Jones
EMI



“Urteko diskorik onena”. Eta ez da guk esana, Grammy sariak banatzen dituztenek baizik. Guztira zortzi sari irabazi berri ditu Brooklyn-en jaio zen 23 urteko abeslari eta piano-jole gazte honek... eta bere lehenengo diskoa baino ez da. Ravi Shankar indiar musikariaren alabak era goxoan eta beroan jotzen ditu bere abestiak.

The raven
Lou Reed
Warner



AEBetako musikari mitiko hau hemen dugu berriro, bere 31. diskoa besapean duela. Edgar Allan Poe idazlearen poemak eta ipui- nak hartu ditu oinarritzat lan hau osatzeko. Besteak beste, David Bowie, Laurie Anderson emaztea eta Willem Defoe eta Steve Buscemi aktoreen laguntza izan du Reed-ek.

Amaraun
Amaraun
Elkarlanean



Durandaldeko laukote berri hau nabarmen bihurtzen duen instrumentoa oboea da. Horrela definitu dute eurek taldea: “Tradizioetik eta sormenetik abiatuz, jazz moldeak erabiliz eta inpro- bisazioak eskaintzen digun askatasunarekin josi dugun amarauna”. Hamaika abes- tik osatzen dute euren lehen diskoa.

Zuzenean >

St. Patrick gaua Algortan



Aurton ere St. Patrick gaua ospatuko da Getxon, eta horretara- ko The Stompers talde- ak zeltiar musika eskainiko digu Algortako San Nikolas plazan, martxoaren

16an eta arratsaldeko 8etan. Sarrera dohainik da. The Stompers Irlandak, Britainia Handia eta AEBetako sei musi- kariz osatutako taldea da. 1997an eratu zen, eta gaur egun Katalunian bizi dira. Orain arte hiru disko grabatu dituzte, besteak beste Galiza, Euskal Herria, Katalunia eta Finlandiako hainbat musi- kariren partaidetzaz.

The Stompers
Martxoak 16, 20:00, San Nikolas plaza

Kontzertua > Leioako gaztetxean

Udondoko gaztetxeak emanaldi sorta ederra eskainiko du martxoaren bigarren hamabostaldi honetan ere. 29an (zapateria) kontzertua egongo da hiru talderen eskutik: *Josu Distorsión y los del puente romano, Undécimo mandamiento* eta *El trono de Judás*. Talde aproposak, Aste Santua hurbiltzen ari zaigun honetan. Arratsaldeko Betatik aurrera.

esaterikbadut

Esti Ezkerra

Ez gaituzte isilduko

H itza da dugun armarik boteret-suena. Halaxe esan zidan John Bergerrek. Aspaldi konturatu zen bera horretaz, pintzelak utzi eta boligrafoa hartzea erabaki zuen egunean bertan. Zinez sinesten du literaturak mundua alda daitekeela; jakin badaki aldaketa ez dela goizetik gauera etorriko, baina liburuek gogoeta eragiteko gai diren neurrian, munduan gertatzen ari dena salatzen modua diren heinean, etorkizunari begira jartzeko aukera egongo da beti. Idazle politiko deitu izan diote Bergerri, bere obra, bere obra zoragarria iraindu eta arbuatzeneko asmoz. Hain zuzen, botereak eta haren alde daudenean esan izan dute hori. Bat-batean, nazismo garaia etorri zaizkit gogora. Liburu erreketak plazetan. Ideiei beldurra. Intolerantzia. Frankismoa ere hor dugu. Zentsura. Errepresioa. Adierazpen eta informazio askatasuna ukaturik. Historia errepikatzen ari da. Berriro liburu-egunkari-erreketa plazetan. Egin-en sartu ziren lehenik; orain Egunkariari iritsi zaio txanda. Tartean, eraso etenganbeak euskalduntasunari loturiko erakunde eta elkarteei. Hitzaz baliatuko gara Euskal Herrian gertatzen denaren berri emateko, torturak salatzen. Liburuak eta egunkariak erre ditzakete, baina ideiek, sentimenduek, hizkuntzek zutik iraungo dute. Jakin dezatela hori. Egunkaria aurrera. 3

Munduko literatura, euskaraz

Literatura Unibertsala bildumak 100 titulu kaleratu ditu dagoeneko; azkena, *Hamlet*

Eusko Jauriaritzak, Ibaizabal argitaletxeak eta Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpretarien Elkarteak argitaratzen duten *Literatura Unibertsala* bildumak mundu mailako idazle handien lanak euskaraz irakurtzeko aukera ematen du duela hamahiru urtetik hona. Iaz, urte amaieran ailegatu



William Shakespeare

zen 100. titulura: Shakespeare-ren *Hamlet* ezagunaren itzulpena. Bidean, idazle handi askoren lanak euskaratu dituzte: Mark Twain, Rudyard Kipling, Leon Tolstoi, R.L. Stevenson, Truman Capote, Gabriel García Márquez...

Ehun bat idazle, euskaratuak

Hala, klasiko handiak irakur daitezke euskaraz honezkerok: *Koronelari ez dio inork idazten*, *Madame Bovary*, *Giza faktorea*, *Harreman arriskutsuak*... Bildumak argitaratutako lehen lana Jonathan Swift-en *Gulliverren bidaiak* izan zen, eta guztira ehun bat idazleren liburuak itzuli dira. Arduradunek diotenez, hamahiru urteko ibilbideak gauza askorako aukera eman du; asko aurreratu da itzulpengintzan eta gero eta euskara landuagoan irakur daitezke aipatutako lanak.

Ehungarren liburua, esan bezala, Juan Garziak euskaratutako *Hamlet* antzezlanaren izan da. Abenduaren 3an aurkeztu zuten, Euskararen Nazioarteko Egunean beraz, baina data horrek badauka beste esangura bat ere: *Hamlet*-en lehen euskal itzulpena 1951ko abenduaren 3an burutu zen. m

Irratia >

Koska Irratiak programazio berria

Uribe Kosta osoan entzun daiteke duela lau urte abiatutako **irradi librea**

Lau urte ditu dagoeneko Getxoko Koska irradi libreak. Bertakoen esanetan, beti dabilta berritzeko ahaleginetan; horren lekuko, duela aste gutxi programazioan sartutako zenbait saio berri. Orain, arratsaldeko 8etatik gaueko 12ak bitarteko ordu guztiak betetzeko helburua daukate, oraindik hutsuneak daukate-eta. Bestela ere, 24 orduz musika eskaintzen du Koskak. m

IRRATI SAIO AIPAGARRIAK

Astelehena

20:00: *Studio one*. Rock steady, reggae, ska
22:30: *Casa Babylon*: musika desberdinak

Martitzena

21-22:05: *Ai-ana*. Reggae musika
22:30-24: *Rumble in the jungle*: rap, hip-hop, dub musikak...

Eguaztena

21:00: *Ilunabarrean kontu kontari*. Magazina, elkarrizketak, musika. Berria hau ere. Kazetaritza ikasle batzuek egiten dute.
22:30: *Hitz, Pitz eta Anitz*. Hiru atal: euskal kultura eta literatura/Zinema (elkarrizketak eta abar)/Musika mota desberdinak (anitzak, alegia)

Eguena

20-22: *Cuarto oscuro*. Talde lokalak, elkarrizketak...
22:00: *Insomnio*. Techno musika eta musika elektronikoa. Magazina.



Harremanetarako: 66. posta kutxatila (Getxo).
Diala: 89.8 FM. Uribe Kosta, Deustuan, Txorierrin, Ezkerraldean eta inoiz Castron ere entzuten da

Domeka:

21:00: *Kaleko ahotsa*. Hiru gai: gai nagusi, egunerokotasuneko; kirol saltsa, polemika, eztabaidak...; ekologia, ingurugiroa...

Entzun >

Roge Blasco

Roge Blascok hots handiko irratsaio bi aurkezten ditu Radio Euskadin. Alde batetik, *Levando anclas* (domekaero, gaueko 10etatik 12etara) urteak daramatza entzuleen kutuna izaten, eta bertan bidaiekin gainean berba egiten dute Blascoren gonbidatuek. Bestetik, *La casa de la palabra* saioan (asteleheneretik barikura, gaueko 9etatik 10etara) istorioaren bat bizi izan dutenei uzten die mikrofonoa. Oso gomendagarriak biak.

Irakurri >

Zabalik



1999ko azaroan hasi zen Zabalik aldizkariaren ibilbidea. Garai hartan, Nerea Azurmendi zuzendariak dioenez, "asteburukaria ginen". Alegia, egunkari baten funtzioa bete gura zuten, baina asteburuko egunerokotasunari lotuz.


lazko udaberrian etorri ziren aldaketak: "Astekari bihurtu ginen, erreportaje atenez, eta kolorea eman zioten aldizkariaren 40 orrialdeei, tamainua mantenduz, hori bai. Barikutik domekara saltzen da, euro bat eta erditan, eta gizarte gaiei buruz jarduten du, euskaraz. Azurmendiren berbetan, "arintasuna eta irakurtzeko erraztasuna" bilatzen dute.

Harremanetarako: 943 31 70 77

uhinakFM

Getxo Irratia	87.6
Koska Irratia	89.8
Radio Euskadi	92.4
Euskadi Gaztea	94.7
Bilbo Hiria Irratia	96.0
Tas-Tas Irratia	97.0
eitb irratia	100.1
Bizkaia Irratia	102.6
Euskadi Irratia	104.4
Pititako Irratia	107.0

liburuak




Borrokairen baitan
Iñaki Irasizabal
Hiria

Atentatu batzuk egin ondoren, ETAK Bilboko etxebizitza batera bidaltzen duen militantea da Gorka gaztea. Bera da Durangoko idazle honen lehen nobelaren protagonista.



Traktatus Filosofikum...
Xabier Galarreta
Hiria

Apurturiko puzzle anarkiko honetaz ezin da berba egin "Gaueko abentura" gogora ekarri barik, biak liburu "bikiak" dira-eta. Halako espiritu punky-nihilistan dago oinarrituta lan hau.



Ekialdeko mamuak
Jon Arretxe
Elkar

New York-eko Dorre Bikien erasoaren ostean, protagonista Istanbulera iritsi da. Handik Teheranera joateko asmoa dauka, Turkia eta Iran zeharkatuz, 2.500 kilometroko txangoan.

Gure espezieak >

Bisoi europarra



- **Izen generikoa:** Mustela lutreola
- **Izen arrunta:** Bisoi europarra
- **Berezitasunak:** 40-60cm-ko luzera eta 500-800gr-ko pisua.
- **Bizilekua:** Landaredia handia duten ingurune hezeetatik gertu.

Bisoi europarrak gorputz luzea eta zilindro antzekoa du eta oso hanka motzak ditu. Ilaje luzea eta ugaria dauka, arre-ilun kolorekoa. Muturrean, goiko eta beheko ezpainen inguruan zabaltzen den nario zuria du. Hau da bisoi amerikarrarekin duen alderik nabarmenena; izan ere, azken honek duen narioa beheko ezpainetik soilik zabaltzen da.

«Penintsulan, berari buruzko lehen aipamenak, Gipuzkoan egin ziren, 1951an»

Ingurune hezeetatik gertu bizi da; hots, paduretara, leku hezeetan, idoieta... baina beti ere, hauen bazterretan landaredia handia dagoenean. Bazter horietatik ibiltzea atsegin du, baina uretan murgildu eta ehiza egiteko arazorik ez du.

Harraparia omen da, eta batez ere, ur-arratoiak, hauen arrautzak, satorrak eta arrainak ere jaten ditu. Otsailetik apirilera araldian egoten da, eta sasoi honetan arrak ibilaldi luzeak egiten ditu eme bila. Sexu biak poligamoak dira.

Penintsulan, bisoi europarrari buruzko lehen aipamenak Gipuzkoan egin ziren, 1951n. Geroago beste eremu batzuetara hedatu zen, Ebroko arora heldu arte. Badirudi 60. hamarkadan bazegoela gure eskualdeko ingurune hezeetan; egun, datu zehatzagoei esker jakina da bisoi hau badabilela gure inguruetan; hala ere, ezezaguna dugu populazio dentsitatea. Beste alde batetik, bere etsairik handiena eta kanpoko den bisoi amerikarraren ale gutxi agertzen da gurean.

Gaia > Atmosferaren kutsadura

Aire garbia daukagu?

Eskualdean dauden neurtegien arabera, gure atmosfera **ez dago oso kutsatuta**

Uribe Kostan airearen kutsadura maila neurtzen duten gune bi daude. Bata Getxon, bestea, zaharragoa, Erandion (Leioakoa kendu egin behar izan zen, auto asko alboan jartzen zirelako). Getxokoak eskualdeko herri gehienen eremua hartzen du, eta, Maribi Albizu Eusko Jaurlaritzako

Kutsadura Atmosferikoko Zerbitzuko buruak esan digunez, gure inguruko airea ez dago oso kutsatuta. Guneok neurtzen dituzten kutsagaiei dagokienez behintzat, Uribe Kostan ez dira inoiz legeak gehienekotzat jotzen dituen kopuruak gainditzen. Hartu arnasa lasai, hortaz. m

Zer neurtzen da?

Getxoko guneak ez du airea kutsa ditzaketen eragile guztien kontzentrazioa neurtzen: ozonoa, sufre dioxidoa, nitrogeno oxidoak, karbono monoxidoa eta zenbait partikula txikirena baino ez. Metal astun eta abarren kasuan beren-beregi egin behar dira neurketak. Bestalde, kutsadura-maila asko aldatzen da egunez egun, atmosferaren egoeraren arabera (haizea, tenperatura, e.a.).



Algortan Hirutasun elizaren parean dagoen kutsadura neurtzeko gunea

Sasoi da > Lezken kimu berriak ezin gal dezakegun ikuskizuna



Urtegietan eta ur geldidun ibaietan hazten den eta kanabera itxura duen landare iraunkorra da lezka. Lau metroko altuera hartzera hel daiteke. Batez ere, Bolue hezegunean ikus ditzakegu, iraunkorak diren gune istiltsuak behar-beharrezkoak dituen landarea da-eta. Hortaz, eskualdeko erreketa aurkitzea gaitzagoa izan daiteke, ur loetan ez bada. Sahats eta haltzen ondoan hazten dira eta urteko sasoi honetan kimatzen dira, hau da, adartxo berriak ematen dituzte. Honekin eta sahatsen loratzearekin batera, ikuskizuna bermatuta dago.

Jose Mari Isasi > idazlea

“Nekatuta nago nire eleberriek sortutako polemika guztiekin”



Jose Mari Isasik pertsonaia publikoak ateratzen ditu bere eleberrietan

Bere lehen nobelak, *Variaciones Julen Guerrero-k*, zer esan ugari sortu zuen. Ez hainbeste bigarrenak, horretan ere protagonistak pertsonaia publikoak izan arren. Halakoxe da Jose Mari Isasi leioztarraren estiloa: benetako pertsonaia fikziozko istoriotan murgilduarazi. Duela gutxi aurkeztu duen hirugarren eleberrian, ordea, pertsonaia publikoak zertxobait “ezkutatzea” erabaki du, polemikaz nekatuta nonbait.

—Idazle polemikoa ei zara...

—Gertatzen dena da nik izen publikoak erabiltzen ditudala neure eleberrietan. Lehenengoan Julen Guerreroarena erabili nuen. Eleberri horretan, Julen Guerrero intsumiso bihurtzen da, eta hortik polemika etorri zen, batez ere Madrilgo hainbat komunikabideren aldetik.

—Julen Guerreroengandik, izena ez ezik, gehiago hartu zenuen?

—Bai. Bera da pertsonaia, lehen mailako futbolaria eta abar, baina eleberrian intsu-

miso bihurtzen da. Gauza publikoak mantentzen ditut, eta beste batzuk aldatu. Garai hartan nahiko kezkatuta nengoen intsumisioaren arazoarekin; berau mahai-gaineratzeko hura bururatu zitzaidan, eta hala egin nuen.

—Erreakzioa berehalakoa izan zen...

—Tira, lehendabizi Julen Guerreroari eleberria ematen eta berarekin nolabaiteko akordia lortzen ahalegindu nintzen. Baina ez ninduten serio hartu, eta nobela Ibaiganen egon zen luzaroan, baimen zain.

Azkenean, argitaratzea erabaki genuen. Handik aste bitara-edo El Mundo egunkariak berri bat kaleratu zuen liburua salatuz. Egun hartan, etxera heldu nintzenez, 20 dei neuzkan zain.

—Ostean, erabili duzu izen publikorik?

—Bigarren eleberrian (*Un mundo de Sastre*) idazle baten izena erabili nuen. Félix de Azua, Bartzelonakoa. Eta Inés Sastrenena era bai.

«Euskal gatazkan, zuloa gero eta handiagoa da»

—Orain dela gutxi *Y ahora qué* aurkeztu duzu...

—Bai, baina tartean ipuin bat argitaratu nuen antologia batean eta hark ere sortu zuen polemika apur bat, Mayor Oreja agertzen zen eta.

—Zertaz dihardu *Y ahora qué-k?*

—Amodio istorioa da eta atzetik euskal gatazka ageri da. Hori liburuaren gaietako bat da. Beste bat artea da, sormena. Badago pertsonaia bat, K.U., eta suposatzen da hori Kirmen Uribe dela, baina oraingoan ez dut izenik ipini. Azkenean hala erabaki dut, nekatuta nagoelako polemika guztiekin.

—“Politikoki ez zuzena” izango da?

—Hala esaten didate. Nik uste dut zuloa gero eta handiagoa dela. Ez dakit zehatz-mehatz zulo hori non kokatzen den; ematen du alde batera “onak” daudela, ETaren biktima direnak, eta beste aldean gaitzok. Erdian zuloa sortu da, eta nik uste dut eleberri hau zulo horretatik sortzen dela. Ni ez nago ETaren alde, baina beste aldean ere ez, eta horregatik uste dut zuloa dagoela. Zulo hori bete edo behintzat zubia eraki nahi dut, momentu honetan ia ezinezkoa dela uste dudana arren. m

Gorputza >

Idorreria

Jose Mari Uribarri medikua

Gure gizartean %25ek idorreria jasaten duela dio. Idorreria komunera astean hiru bider baino gutxiagotan joatea da, eta batez ere atera beharrekoa gogogor badator eta hura ateratzeko indar handia egin behar bada.

Idorreria dagoenean beti aztertu behar da gaixotasunen baten ondorioa ote den. Gaixotasun neurologikoen (parkinsona), endokrinologikoen (diabetesa, hipotiroidismoa, ...), este lodikoen eta beste hainbatek sintoma gisa ekar dezakete idorreria. Horretaz gain, kasu askotan idorreriaren eragilea hartzen dugun botikaren bat izaten da: medikuak eztula, hipertentsioa, depresioa edo bihotzerrerako ematen dizkigunak, besteak beste.

Hala ere, gehienetan ezin dugu aurkitu arazo honen eragilea. Halakoetan, este lodiak berezko bizkortasun gabezia duela esaten da.

• Eta, zer egin idorreriarik ez izateko?

Behin betiko konponbidearen oinarria neurri dietetikoak dira. Idorreria jasaten duten guztiak hartu beharko lukete gutxienez 30 g fibra egunero, eta horrez gain, bi-hiru litro likido irentsi. Fibra edo zuntza honelako elikagaietan aurkituko dugu: fruituak, barazkiak, fruitu lehorrak, garia, artoa, olo integralak eta abar.

• Neurri lagungarriak

—Egunero 10 edo 15 minutu gorde komunera lasai joateko, ahal izanez gero goizean jaiki ondoren edo janariren baten ostean.

—Indar egiteko era egokian jarri komunean, hau da, belarriak pixka bat tolestuta eta pelbisa baino gorago igonda.

—Ariketa fisikoa egin. Honek sabelaldeko giharrak sendo egon daitezela laguntzen du eta este lodiko kontrakzioak eragiten ditu.

Botika aringarriak ez dira konponbide ona eta batzuetan arriskutsuak izan daitezke: ez dira erabili behar medikuak aginduta ez bada. Hartzekotan, fibraz osatutakoak dira egokienak. 4

Gogoa > fobiak (II)

Jakin behar dena

Nagore Etxebarri psikologoa

Goazen oraingoan aurreko zenbakian hasitako ildoari jarraituz, fobia soziala eta fobia espezifikoak gainetik ezagutzera. Fobia sozialaren kasuan, jendeak norbera aztertzeak belurtzen du subjektua. Horren ondorioz, neurri kanpoko izu eta ikara, izerditzea, takikardia eta arnasa hartzeko zailtasunak izan ditzakete gaitz hau dutenek. Sintoma hauek gorpil zoroa eraten dute gainera: herstura honek ziurtasun eza eragiten du, eta beraz, hori jasan

ten duenaren jardura okertzen du; orduan hura, egoerari aurre egiteko gai ez denez, gehiago larrituko da eta hau dela eta, herstura sortzen dioten egoerak saihesten saiatuko da, bere bizitza horren menpe antolatuz. Oso oztopo handia izan daiteke ia edozein lanpostu aurrera eramateko, jende aurrean hitz egiteak zein jendaurrean egon behar dutela pentsatzeak berak herstura izugarria sortzen baitie fobia mota hau dutenei.

Fobia espezifikoak, berriz, objektu zehatz batekin loturiko nahasketa fobikoari deritzo; esate baterako, armiamak, odola, iluntasuna eta besterekin loturikoa. Fobia hauen jatorria haurtzaroen egoten da, baina badira heldutasunera arte heltzen diren kasuak. Kasu horietan, eta bizitza baldintzatzeko duten indarraren araber, tratamendua behar izaten dute.

Fobiaren kasuan kontuan hartzekoa da eragile txiki batek zelako eremu zabala kaltetzen duen: gehienetan eguneroko bizimodu osoa. Hau dela eta, ezinbestekoa da tratamendu egokia, eta fobietan espezializatutako norbaiten eskuetan jartzea litzateke a proposena. m



«Jendaurrean egon behar dutela pentsatzeak berak herstura izugarria sortzen die fobia [soziala] mota hau dutenei»

OSAE IDE? HORTZ? KLINIKA
Arantza Etxebarria

Odontologia orokorra
Ortodontzia
Periodontzia
PADI

Bidebarri 27, behea eskuinean ALGORTA 94 94 430 76

Jose Unzurrunzaga Astigarraga

HORTZ? KLINIKA

Tel. & Faxes: 94 460 06 21
Andikoetxe 2, behea ezkerrean
ALGORTA



Algortako Jaione Agirre, Bilbon daukan "Kala" denda

Jaione Agirre > Modan aditua

Eguzkiarekin batera datozen joerak

Ezaguna den saltoki handi batek esaten duen bezala "dagoeneko udaberria heldu da". Eguraldi ona datorrenean adio esan behar diogu neguko arropari, ... Baina zelan jantziko gara hasteko dagoen sasoiari?

Galdera horri erantzuna topatzeko, moda munduan ia 20 urte daramatzen Jaione Agirre algortarrarekin egin dugu berba, eta esan digunez, minimalismoaren garaia amaitu da. "Barrokoa eta nahasketa izango dira nagusi 2003ko udaberrian eta udan. Gainera, iaz hasi zen trantsizio denboraldia aurten finkatuko da eta koloreek indar gehiago hartuko dute", diosku Jaionek.

Emakume gazteei dagokionez, "jantzi kustomizatuen" joera izango da, hau da, estanpatu ezberdinen konbinazioa. Helduentzako, berriz, jantzi serioagoak askoz informalagoak diren arrokekin nahastuko dira, adibidez, gazazko alandora bat galtza bakero batzuekin.

Kolore nagusiak

Arrosak eta urdinak izango dira errege, beltza eta boli koloreekin batera. Bestalde, gizonak arropa marroiak eta

beixak jantziko dituzte, batez ere.

Barrokoaren garaia denez, osagarriek garrantzi handia izaten jarraituko dute: lepoko lodiak zintzilario batekin, belarritakoak, boltsak eta joera etnikoko gerrikoak. "Baina osagarri hauek guztiak ez dira aldi berean jantzi behar; Gabonetako zuhaitza eman nahi ez baduzu behintzat. Ukitu pertsonala ematen ere jakin behar du norberak. Hori da garrantzitsuen, edertasuna ez dagoelako lorean, ontzian baizik.", argitu digu Jaione Agirrek. m

Puntako-puntako arropak

• **Gizonezkoentzat:** bonbatxoa, mao lepodun alkandorak eta marra diplomatikoak dituzten trajeak.

• **Emakumezkoentzat:** galtza bakeroak eta parpailadun edo gazazko blusak.

I
I aki
Bitxitegia

Ω
OMEGA AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte T: 4302345

Algorta



Errotalde
ileapaindegia

HARTU TXANDA TELEFONOZI!

T: 460 38 90

Errotalde 18A / ANDRA MARI, GETXO



Mar a Jes s

ILEAPAINDEGIA ETA EDERGINTZA

Alangobarri 10
T: 4910821
ALGORTA

HARTU TXANDA

Adi
lagun!



Kafe Antzokiak antolatzen dituen ekitaldietarako sarrerak lor ditzakezu. Martxoak 16a baino lehen UKra deitzen duten lehenengo 2 pertsonak bina sarrera lortuko

Martxoak 16: Olgetan haur jaia
Martxoak 26: The nomads eta Bummer.
Martxoak 27: Gaitzerdi Teatro.
Martxoak 30: Olgetan haur jaia.
Antzerkiola Imaginarioa.

Zeuk erabaki eta deitu!
94 491 13 37

BILBO MICRO



“1982az geroztik
soluzio
informatikoak
eskaintzen”

ELKARTE ANONIMOA

Colón de Larreategui, 25 / 48001 BILBAO
Tf. 4230212 / Zerbitzu teknikoak: 4230213

[sarean]

Makinak alboratuta

Open Directory egitasmoan milaka lagunek arakatzen dute sarea webguneen bila

Gizabanakoek hobeto egiten dute lelopean milaka bolondres ari dira Interneteko kaosean ordena ezartzen. Bilatzaile gehienak (Google, Alltheweb edo Altavista bezalakoak) makinaren bitartez hornitzen dira. Hau da, ordenadore bat webgunez webgune saltoka ibiltzen da, bakoitzetik informazioa eskuratzeko. Horrela, datu base erraldoiak sortzen dituzte, baina askotan, halakoetan metatzen den informazioa ez da kalitate handikoa. Gero guk gauza bat bilatu eta nahaste-borraste bat baino ez dugu ateratzen.

Open directory-n (www.dmoz.com) pertsonak egiten dute lan hori, eta beraz, lotzen diren webguneen kalitatea



www.aurki.com

bermatuta dago. Gainera, badago sistema horren bertsio euskalduna, edonork bere webgunean erabil dezakeena: Aurki.com bilatzaile eibartarrak erabiltzen duen sistema. Parte hartu nahi? Sartu dmoz.org-en, oso erreza da. m

webgida

XUXEN

>www.sc.ehu.es/xuxen-e.htm

Testuak orrazteko Word erabiltzen baduzu, Xuxen osagarria instalatu beharko zenuke. EHU eta Eusko Jauriaritzaren egitasmo honi esker erdara askok duten ortografia-zuzentzailearen antzekoa dugu euskaldunok. Debaldekua da gainera.

PLANTHOGAR

>www.planthogar.net

Lorategian gustura ibiltzen bazara, sar zaitetz webgune honetan eta mila trikimailuxo ikasiko duzu gero eta landare ederragoak izateko.

GOOGLE LABS

>>labs.google.com

Google-koek etorkizunerako zer prestatzen dabilzan ikusi nahi baduzu, jolas ezazu hemen aurkituko dituzun tresnekin. Proban dau den lanabes bitxiak ikusiko dituzu.

Sarean aurkitu dugu > Denetarik



Internet-en irudi harrigarrik edo barregarrik topatzen baduzu, bidali UKra. Interesgarrienak aldizkarian argitaratuko ditugu. ukaldizkaria@telefonica.net

KAMILTXO

lehen hartz
euskaalduna!

Kaixo
laguntxo!



27 €
bidalketa gastuak:
4,25 €

DEITU ORAIN

902 45 12 12

EGUN GUTXIREN BURUAN, ZURE ETXEAN

TRUK

902 45 12 12
IRUÑEA • EUSKAL HERRIA

ALBE alerik ale

Goxotasuna oholtza gainean

Miren Loizaga > Txiri-txiri gorantza

Beldurak gaudituz bertsolari egina, kantuan zuzena eta fina. «Galdera arrarorik ez egin, gero!» bota zuen beldurrez, berbetan hasi orduko; erantzun bitxirik ere egon zen, irakurleok horren lekuko.

Testua: **Josu Arroyo**
Argazkia: **Asier Mentxaka**



«Azken saioetan askoz lasaiago egon naiz, askoz seguruago»

—Maiz aitortu duzu saioen aurretik oso urduri egoten zarela. Noiz arte horrela?

—Azken saioetan askoz lasaiago egon naiz, askoz seguruago, baina hala ere ez dut behar den patxada hori lortu. Bertsoa botatzen nagoela, bertsoan kontzentratuta, ez nago urduri, baina bertsoa amaitzean, orduan bai... Ez da azaltzen erraza.

—Nola eramaten duzu bertso eskolako neskarik famatuena izatea?

—Kontuan hartuta bizpahiru neska gaudela, ez da lorpen handia. Eskerrak orain eskolako neska gaztetxoak indartsu datozen!

—Baina Bizkaiko Txapelketaren ostean jende gehiagok ezagutuko zaitu kalean...

—Aurretik ezagutzen ez nindutenek orain ere ez naute ezagutzen, baina ezagutzen nauen jende askok ez zekien bertsoan nenbilela, txapelketan eta... Eta egia esan, ilusioa ematen du egiten duzunak kalean oihartzunik baduela ikusteak.

—Oso gaztea izan arren, irakasle ere

bazabiltza zenbait eskolatan!

—Bai, eta oso pozik! Nirekin dauden ume gehienentzat lehen kontaktua da bertsolaritzarekin, eta saiatzen naiz ahalik eta gauza gehien irakasten, beti kontuan hartuta garrantzitsuena umeak gustura egotea dela. Erandion nabil, Alzaga ikastolan, Betikon (Leioa), eta Arrankudiagan ere badut taldetxo bat!

ERAKUSLEIHOA

- ▶ Miren Loizaga Perez.
- ▶ 1982an jaioa, Sopelan.
- ▶ Lehen Hezkuntza eta DBH, Ander Deuna ikastolan.
- ▶ Egun, Zuzenbide ikasketak egiten dabil, Deustun.
- ▶ 18 bat urterekin hasi zen serio bertsoan.
- ▶ Egun, bertso irakasle dabil hiru ikastetxetan.

“Ilusioa ematen du egiten duzunak kalean oihartzunik baduela ikusteak”

HIRU LERROAN

EUSKAL HERRIARI

Bertsolaritzailea: **Miren Loizaga**
Doinua: **Aita izena kanta beharrak**

1

Gure herria, gure hizkuntza ito nahian zenbat urte, ta hala ere bizirik daude arnas sakon hartzen dute. Gaur ere kontra ditugu asko fama apur baten truke, “super-epaile” horiek direla nabarmendu gura nuke; isildu nahian gure ahotsa indarberritu digute.

2

EGUNKARIA izan daiteke hau guztiaren eredu; urte ta jende askoren lana gorrotoaren gatibu. Lehenago ere saiatu ziren EGIN da horren testigu, baina baGARA oraindik eta hortaz zerbait badakigu; oraina eta etorkizuna geure egingo ditugu.

3

Garzon hasi zen, Del Olmok segi, kontu hau ez da berria, honekin barre egingo nuke, ez balitz negargarria. Jakin badakit gogorra dela, dela momentu larria, baina mantendu dezagun denok esperantzaren irria; batu indarrak, gora bihotzak ta Gora Euskal Herria!

“Asko gustatzen zait Amurizari entzutea, zerbait berezia du bertsoan”

—Zein ondorio atera zenituen Bizkaiko Txapelketatik?

—Bertsolaritzak erronka berriak ekartzen dizkizu, denbora guztian. Aspaldi esan nuen, «ia kapaz naizen bertso bat bat-batean botatzeko», orain badakit kapaz naizela; eskualdeko txapelketan parte hartzeko deia jaso nuen, eta aurrera egin nuen... eta horrela heldu nintzen Ondarrura, Bizkaiko Txapelketako saio batera. Nik ez dut jartzen mugarik, hobetzen joatea, erronka txikiak gauditzen joatea da kontua, besterik ez. Pare bat urte baino ez daramat bertsoan, eta ezin dut aurrerago begiratu.

—Ibilbide labur honetan zein izan du Mirenek bertsolaritzan eredu?

—Bertsolaritzan sartu nintzenean, behin ikastolara etorri ziren Iturriaga eta Elortza, eta liluratuta geratu nintzen (bertsoenga-

tik ere bai...). Horiek ziren hasieran eredu, gustuko nituelako. Gero aurrerago, dudarik gabe, Amuriza. Asko gustatzen zait hari entzuea, bere ahotsagatik... zerbait berezia du Amurizak bertsoan.

—Inor saiatu da inoiz Miren bertsoen bidez “konkistatzen”?

—Ez dut erantzungo... (isilune labur bat). Beno, bai, nire umeek inoiz galdetu didate bertsoan ea nobiorik daukadan, eta gai hori aitzakia moduan erabili dut haiek bertsoan ipintzeko, eta kontura daitezen bertsoak ere balio duela ondokoa zirikatzen. Nik uste dut bertsoak edozertarako balio duela. Proba dezala gura duenak!

Arratsalde polita igaro genuen sopoloztarrekin, baina hauek ez dira egun goxoak gure herriarentzat, hainbat euskaldunen-tzat, eta Mirenek bere bertsoak utzi zizkigun, bere testigantza moduan. m

BERTSOAGENDA

II. ABRA Saria

Martxoak 29, 17:00etan,
Andres Isasi Musika Eskolan.
Bertsolariak: Miren Ibarluzea, Iñigo Izagirre, Jon Martin, Ekaitz Larrazabal «Katxo», Miren Loizaga, Manex Agirre.
Gaijartzailea: Josu Esnaola.

Kanpamartxo 2003

Apirilak 6, 13:30ean,
Erandioko Arriaga auzoan.
Bertsolariak: Mañukorta, Sustrai Kolina, Onintza Enbeita.
Gaijartzailea: Miren Loizaga.

Jose Luis Ugarte

Oraingo honetan, Erandioko Goierrikoa den Jose Luis Ugartekin izan genuen berbete dakargu. Berrogeita hemeretzi urte ditu Jose Luisek eta hamalau urte daramatza Leioako unibertsitatean beharrean. Martiartu bidean dagoen bere etxean hartu gintuen eta honako hauek kontatu zizkigun.

Testua: **Urtzi Iglesias** / Erretratua: **Asier Mentxaka**

—Leioako unibertsitatean egiten duzu behar. Noiz hasi zinen bertan?

—Hor nao. Unibersidaden, larogetazortzin, hamalau urte egin dodas. Oin telekomunikaciones edo telefonista pasa doste lanera. Jubila arten hor geratuko naz edo ze ingo dozten... beste lekutara aldatu edo. Hori etze handia da ta etze handien danak aginten de; ta langilek, aginten deuren lekure, jo ta ke.

Lanpostu ona da, gustora, ixerdirik ez dot botaten, kulturrungo minik bez... lanpostu ona. Ta hor nao, yarrite, ta telefono hartu ta geitzen danai izena emon edo zenbaki emon ta geldu han yarrite. Len atezaintza, atek zabaldu edo lampara bat edo beitu... oin zera, auntze modun buruk amarrata holako katzarroakin geldu han ordenadore aurren, ordu batan hasi ta bederatzitarte. Lan politau bestea, nitzako; mobidua, ta jentea ikusi... guretzako lana hori ez da baie ez dago beste puestorik ta hor geratu. Zerak eon dire, puesto de concurso, ta oin barrik atara eiden, ta perfil de euskerako ta orrek bai, baie gero nik ordenadorekin eneun emon ezeberik, praktkarik, ta orrek ordenadore praktikkak puntuk dire.

—Zer moduz konpontzen zara ikasleekin eta irakasleekin?

—Ikasleekaz ondo konpontzen nintzen. Ta irakasleekaz nik ez dot euki ezer tzarririk, duztiekaz eon naz ondo. Lantzen bat, badao rarotxu dan bat, ardi balza, baie ondo.

—Nonbaiten egin zenuen behar unibertsitatean sartu aurretik?

—Lelau, hogetabi urte in nuzen Asun, gruek ta carretilla elevadorak eta horrek... baie gero, klaro, etor zan hau entresakea,



Argazkian, Jose Luis Ugarte

sei hilebete etzen, sei hilebete lan, ta urtebete etzen ta urtebete behar; baie diruek... zor itzi yeuskun, pagatarik ta ez pagatarik ta esan neun: “bueno bueno”, larogetabin urten neun, ta nire atzen gero danak. Handik urten ta sei zazpi urte eon

“Unibersidade etze handia da ta etze handien danak aginten de; ta langilek, aginten deuren lekure”

nintzen etzean, ganadukin, esneekin... bueno, esneekin beti ibil naz kalera eh? Ta azkenean, ba unibersidaden, hor topa lana; hor agarra kable alta tentsionekoari modun ta benga geldu, hau ez da solta behar. Suerte euki neun azkenean, ta hor sartu nintzen.

—Etxean ere behar egiten duzu orain?

—Etzen bebai lan asko. Beitzu bet, tzal bat, ta idiek badus ondino ta hemen beti dao lan; idiekas egiten dogu lan apur bat soloan; bedarra batzuk ebagi... ta gero lanera, zintzo-zintzo.

—Eta erretiroa hartzean zer?

—Hementxe lan apur bat, jardintxu konpondu, berakatza batzuk imini, letxuga batzuk imini... ta hementxe. Hamen baino hobeto ez dau, diru eukiezkon eh? Behar dana dirue da ondo bixteko. Ademas, hamen baino geuze politari non daos, dantza zeuk guzunen, Bilbo zeuk guzunen... dana paraje-paraje. m

Gurberbakeria

ZELAN ESAN Telefonoan berba egiteko

Testua: **Xabi Bilbao**

Gaur egun aparatu eta teknologia nahie dekuz jenteez berba egiteko: posta elektronikua dala, mobiliko mezutxuk direzela... eta komunikabide baxotxan berba eta esalditxu berezi batzuk erabilten duz. Gaur telefonotik berba egikeran sarri erabilten direzen berba eta esaldi batzuk ikusiko doguz:

—Eztakixu Andoni non dabillen? *Geituotzezu telefonoti(k).*

—Bai, geitu gure dotzet, baia ezteko beran numeru. Zuk badekozu?

—Bai, hamentxe dekot: *autzi, apunta iXu (egizu).*

—Ederto! Ointxe geitukotzet, *mobilileaz.*

—Riin, riin,...

—Bai, nor da?

—Egunon, *Andonin lagun bet naz. Para leite bera telefonora?*

—Andoni? *Eztau hemen, beharren yon da!*

—Beharren? *Gaur zapatu da baia,...*

—Zéozar auki dau akábateko. *Gerórau topakozu, egúrdin edo.*

—Bázkalduten étorko da ordun?

—Bai, ordu biék ingirun.

—Májo, ordun *geitukot óstabere.*

—Zer? *Topa dozu Andoni akabun?*

—Kéba! *Eztau etzen. Egúrdin datorrela esan dauste.*

—Badekot nik beharlékuko numeru bere: *apúnta gúzu (gure dozu)?*

—Bai, ekázu ia...

—Riin, riin,...

—Harri eta Herri *Eraikuntzak, bai esan?*

—Epa, *Andoni!! Langille! Zapatuten bere beharren?*

—Andoni? *Ez, Genaro naz ni.*

—E? *Ab, parkatu, imingo nozu Andoniez?*

—Andoni eztau orain, *errekadu beten urten dau.*

—Ba, *gerórau géitukot ordun.*

—Bestala etzera *geituten bádotzezu, ze behar asko deko hemen.*

—Bueno, bai, *eskerrik asko, hálán ingot.*

—Zer, oin bai *topa dozu Andoni famoso?*

—Oin bérez, *úzaba (ugazaba) pára da telefonora ta eztau gúre Andoniri inor géituten ibilte.*

—Kóstaten da *Andoni horréaz berba ite ba.*

—Biénke.

Berba barrik

nahie: asko. / **pára:** jarri.

úzaba: ugazaba, nagusia.

akabukopunte@hotmail.com

Zuen berbakeraren gainean zeezer aipatu gura baduzue, zalantzaren bat edota proposamen bat badaukazue... posta elektronikoa erabili gurekin harremanetan jartzeko



orain
hamabostean
behin

aldizkaria
etxean
jaso nahi
baduzu

94 491 13 37

dirulaguntzak

Boluntarreta
BBK 2095 0121 10 9102483676
sartu zure laguntza gure kontu zenbakian

UK Urbe Kostako Aldizkaria

171 posta kutxa / Amezti 6, 4. solairua 5.
bulegoa / 48990 Getxo / ukaldizkaria@telefonica.net / tel.: 94 491 13 37 / faxa: 94 491 58
31 / bulego ordutegia: 08:00 / 15:00

Euskara ikasten dute**Jon Azkarate (Erandoio)**

—Noiz hasi zinen euskara ikasten?

—Orain dela hamabi urte gutxi gorabehera, baina zehazki ez dakit.

—Zein mailatan zaude?

—Jakin nahiko nuke... Gainera Hizkuntza Eskolarekin hirugarren perfila atera nahi dut.

—Non ikasten duzu?

—Orain Erandioko Udal Euskaltegian nago, baina hemendik gertu dauden beste euskaltegietan egon naiz, eta barnetegietan ere ikasi dut.

—Zerk bultzatuta ikasi zenuen euskara?

—Lehenengo eta behin hizkuntza gustatzen zaidalako, baina behartuta nagoelako ere ikasten dut.

—Zer da gehien kostatzen zaizuna?

—Idazlanak egitea batez ere.

—Orain arte ikasitako arabiltzen duzu?

—Bai, baina jendearen arabera. Kanean arabiltzen dut batez ere.

—Zelan definituko zenuke euskara?

—Hitz gutxitan esateko, Euskal Herriko hizkuntza da. ^m

Bapiruke

Umeen **aisialdia** giro euskaldunean

Bizarra Lepoan Euskara Elkartaren eskutik, gaztetxoek aukera paregabea dute aisialdia giro euskaldunean pasatzeko. Orain arte antolatutako txangoak eta asteburu-pasak oso arrakastatsuak izan dira.

Bapiruke izendapenean aurkeztu zuen, iaz, Bizarra Lepoan Euskara Elkartek 6 eta 12 urte bitarteko haurren aisialdian euskaraz egiteko aukera eskaintzeko egitas-moa.

Zenbait ekintza antolatu zituen elkar-teak urte horretan (asteburu-pasa bi, “Bapiruke gabonak”...) eta arrakasta handia izan zuten. Baina horretan lotu barik elkar-teak helburu berriak ipini ditu urte honetarako. Iaz legez, asteburu-pasa bi prestatzeko asmoa dute taldekideek; baina aurten, gainera, jarduera jakin bat antolatu dute hilabetero. Horrela, otsailean, Donostiara egin zuten ibilaldia (bertan, Aquariuma bisitatu zuten). Hil honen 22-an, ostera, Azpeitira prestatu dute txangoa, trenbidearen museoa ikusi eta lurrun-tren zahar batean ibilaldia egiteko (oraindik badago izena emateko aukera). Horrez gain, udalekuak antolatzeko ahalegina egingo du elkar-teak eta euren ekintzetan parte hartuko duten umeen kopurua gora egitea ere espero du.

Bapirukek, beraz, aukera paregabea eskaintzen du geure haurrek giro euskaldunean olgateko. Informazio gehiago gura izanez gero, Bizarra Lepoan Euskara Elkartarekin kontaktuan ipini besterik ez duzu. ^m

tel: 9449143 57

e-mail: bizarralepoan@euskalnet.net



Hurrengo irteera hil honen 22an izango da, Azpeitiako tren museoa ikustera

Ikerketa baten arabera 2051ean euskara desagertzeko zorian egongo da Iparraldean

Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailordetzak Euskal Herri osoan egindako hizkuntza bilakaeraren prospekzio baten arabera, euskara galtzeaz izango da Iparraldean 2051n. Aurreikuspen ezkorrenaren arabera, Lapurdin, Nafarroa Beherean eta Zuberoan %3 besterik ez dira euskaldunak izango 2051ean. Eta aurreikuspen baikorrena ere ez da lar ona, %5eko euskaldun kopurua agertzen du-eta.

Azterketa hau 1998an egin zuten Eusko Jaurlaritzak eta enpresa batek, baina orain arte ez ditugu datuak ezagutu; izan ere, Eusko Jaurlaritzak balio zientifikorik ez dutela dio, beste iturri batzuek berriz, erabilitako ereduak ondo balio duela deritzote.

Urbe Kostako Euskara Zebitzuak zure zerbitzura

Getxo: 94 491 14 41 • Leioa: 94 400 80 44 • Erandio: 94 676 26 74 • Berango: 94 668 00 08 • Gainerako herriak: 94 676 26 74

Egunkaria

aurrera!

Orain inoiz baino gehiago!

Egin zaitez harpidedun

deitu
deitu

943 30 35 55 / 943 30 35 54

635733389 / 635733388

telefonoetara
telefonoetara

edo bidali zure datuak eta telefonoa helbide hauetara:

Martin Ugalde Kultur Parkea • Eraikin zuria • 20140 ANDOAIN

www.egunero.info/harpidetza

Euskarak behar zaitu **Egunero**



gaizka escudero / villabotas-ekoa

Txirlak saltsan

Errez eta oso arin prestatzen den jakia dira txirlak (Plentziakoak gogoangarriak). Hasteko, berakatzatza oso ondo txikitua eta pipermin aleak jarriko ditugu zartaginean su ahulean. Berakatzatza urreztatu baino lehen koñiak txorrotada ederra bota eta ondoren flanbeatu egingo dugu, hau da, sua hartu behar du. Gero ardo zuri apur bat eta arrain salda gehitu. Arrain saldarik egina ez badaukagu, esparrago lata bat zabaldu eta barruko ur hori gehituz ere ederto geratzen da platera. Sutan mantendu hau guztia bost bat minutuz. Azkenean txirlak, perrexila eta irin apur botako ditugu. Hau guztia eragin salda ondo egiteko. Laster txirlak zabaltzen hasiko dira. Platera prest dago. Guztira hamar minutu izan dira, arin ezta? m

osagaiak (bi lagunentzat)

- txirlak, hiru dozena • berakatzatza, hiru ale • pipermina, ale bi • koñaka • ardo zuria • irina • arrain salda • perrexila • oliba olio



itsaso arana / jolastoki-koa

Zelan ireki ardo botila bat?

Garrantzitsua

Botila lohituta balego zapi busti batekin garbitu ireki aurretik.

Oso garrantzitsua

Prozesu osoan ez da botila mugitu behar, astintzeak kalte egiten dio ardoari.



A

Kapsularen ebakia, gollite-aren azpitik egin behar da



B

Kortxoak zauritu eta alde batetik besteraino zulatu barik atera



C

Botilaren ertza garbitu barrutik

Santi Taberna

oasia Erandio Desertuan



Argazkian, Aranagatarrak, tabernako buruak

Erandion gaudela eta ez dakigula moka-dutxu bat non hartu? Bada, metro gelto-ki ondoan dagoen Santi tabernara sartu besterik ez dugu. Asier eta Aitor Aranaga anaiak dira bertako jabeak; lehenengoak barra atzean egiten du behar eta bigarrenak, berriz, sukaldean. Sei urte daramatzate tabernarekin eta duela hilabete batzuk berriztatu zuten. Gura beste pintxo hartzeko aukera izango dugu bertan: tortilla, mota askotako sandwichak, entsaladilla-pintxoak, olagarroa, ostarako txikit-

xoak... eta Asierren esanetan, arrakastasuen dena: gazta, pernila eta roquefort salta daraman pintxoak. Horiei guztiei, gainera, Aitorrek eta emazteak asteburuetan prestatzen dituzten pintxo landuagoak gehitu behar dizkiegu. Gainera, bariku eta zapatu gauetan bokatak, hanburgesak eta errazioak (perretxikoak, txipiroiak...) ere prestatzen dituzte. m

SANTI TABERNA

San Inazio 3, Erandio

Telefona: 94 467 60 11

jakingehiago



Gastronomia > Internet

Euskal Herriko betiko errezetak sarean

Donostiako euskaltzaleek (Bagera) oso gune txukuna daukate sarean. Gastronomia atalean Euskal Herriko zazpi probintzietako betiko errezetak paratu dituzte interneten. Probintzia bakoitza puntako sukaldari batek ordezkatzen du. Esaterako, Fernando Canales bizkaitarrak bakailao pil-pil erara zelan egin azaltzen du, Luis Irizar gipuzkoarrak txipiroiak tintan edota Jon Sanchotena barraskiloak arabar erara...

www.bagera.net/Bageranet/Ziberteka/Gastronomia/


Asador



- ¥ Zabalik egunero
- ¥ Eguneroko menuak
- ¥ Enpresa menuak
- ¥ Menuak norberaren gustura

- ¥ Egunero karta berezia
- ¥ Gazez dastatzeko menua astelehenetik-ostegunera
- ¥ Jaun hartze bazkariak

Aretxondo 14
Algortako Portu Zaharra / Getxo
Erreserbak: 94 491 25 93



jateko

- urdaitegia
- frutadenda
- elikagaiak

Amezti 4 -Tf.: 94 491 06 54
ALGORTA

TXIKI-AUNDI KAFETEGIA ezagutzen al duzu?

herriko pintxorik onenak ditugu etorri eta probatu!!

Amezti, 10 / T: 94 460 57 57 - ALGORTA

Norte jatetxea



adituak gara makailo eta kazolatxoak prestatzen

Bilbo-Plentzia errepidea
Elexalde 9, Barrika - Tlf-94 677 30 09

Zurikaldai

JOKIN GARATE BAYO Neguriko Etorbidea 9 T: 491 14 87 48990 NEGURI
KIMETZ GARATE AZURMENDI Aingeruaren etorb. 4B (sarrera, Jata Mendia) T: 460 01 87 48990 GETXO



ITXASGANE
prentsa ¥ aldizkariak
GETXOKO KIROL PORTUA
Arriluze z/g • Tel.& Fax: 94 491 53 21
ALGORTA • GETXO

BATIZ KRISTALDEGIA



- BIDRIERAK
- GRABATUAK AREA TEKNIKAREKIN
- IZPILU ERRALDOIAK
- INSTALAZIO OROKORRAK
- FUSIN

Illeta z/g (Sarrikobasoerikin bat)
T:94 430 69 42 /ALGORTA

EREAGA
Bidaiak
Autobusak
T: 94 453 08 16 - 609 405 988
Faxa: 94 453 33 34
GETXO

OLATXO
altzariak
dekorazio-opariak
Andres Larrazabal, 11 AREETA T.: 94 464 89 94
Juan Bautista Zabala, 5 ALGORTA T.: 94 491 13 94

VILLABOTAS JATETXEA



Menu merke eta bariatuak
Especialitateen karta
Giro atsegina
T: 430 43 33
Villaondoeta 2, ALGORTA

[horoskopoa]

URA

t



(Abenduak 21 urtarrilak 19)
Denbora gehiegi igarotzen duzu etxe zuloan sartuta. Ondo etorriko zaizu bidaia txo bat egitea, horrela gauzak beste modu batera ikusiko dituzu. Eguraldia aldatuz doan neurrian gehiago mugitzeko gogoia izango duzu, baita zure lanean ere.

AITZURRA

t



(Martxoak 21 apirilak 19)
Hau marka! Beti eztabaidan zure bikote-kidearekin eta oraindik ez zara ohartu ika-mika horiek ez direla ezertarako balio. Ideia berriak dituen norbait ezagutuko duzu lanean, eta oso proposamen erakargarria egingo dizu.

GARIA

t



(Ekainak 19 uztailak 18)
Ez dakit ohartu zaren baina zure bikote-kidea bakarrik sentitzen da eta berataz ahaztu zarela uste du koitaduak. Laztan gehiago eskatzen ari da. Denbora larregi ematen duzu bulegoan eta lantzean behin deskonektatzea ez da txarra.

META

t



(Irailak 17 urriak 16)
Ordua ailegatu da: utzi malkoak alde batera eta bikote-kide berri baten bila ateratzeko. Kalea merezi duten pertsonen gainezka dago, bilatzen jakin behar da. Saldu, erosi eta inbertsioak eginez, izarrak zure alde dituzte eta. Kontuz zure burua medikatzarekin.

OTSOA

t



(Urtarrilak 20 otsailak 18)
Egunak gero eta luzeagoak dira eta irrikitan zaude hiruzpalau jaiegun edukitzeko. Lasai, dena bere garaian iritsiko da. Baina ulertzekoa da zure grina hori, Gabonetako jaiak aspaldi igaro zirenean eta. Zure lanarekin zerikusia duen bidaia bat egingo duzu.

HOSTOA

t



(Apirilak 20 maiatzak 19)
Aspaldidanik gaixotasun bat baduzu laster gutxi zendatuko zara. Aurrezteko unerik egokiena ez izan arren, horretaz pentsarazea komeniko litzaizuke etorkizunari begira, badaezpada ere. Lanean sormena oso bizi edukiko duzu.

LASTOA

t



(Uztailak 19 abuztuak 17)
Ausardia behar da baina zergaitik ez dituzu ahaleginak egiten? Baliteke maite duzun pertsona horrek besoak irekita hartzea. Lixarrerri gehiegi jaten duzu eta hori ez da batere ona egunero libratu nahi baduzu. Zaindu urdaila eta hesteak.

HAZIA

t



(Urriak 17 azaroak 15)
Egunak joan eta egunak etorri, zure harreman sentimentala haziz doa. Zure gorputzarekin gustura sentitzen zara baina ez litzaizuke txarto etorriko ondo jatea. Diru aldetik sekulako garaiak datoz, gainera zure proiektuak aurrera aterako dira.

ADARRA

t



(Otsailak 19 martxoak 20)
Egunen batean zure buru gogorak nahigabe bat ekarriko dizu eta orduan beranduegi izango da. Zeren zain zaude? Zeure harremana konpondu nahi baduzu eman ezazu lehen urratsa. Nagiak zure osasun ona desgingo du, beraz gimnasia joan zaitez berandu baino lehen.

EGUZKIA

t



(Maiatzak 20 ekainak 18)
Ez izan hain kakapirria zure bikote-kidearekin. Txiki-erietan diru asko gastatzen ari zara eta ez da batere ona, gehiago pentsatu behar duzu eskua diru-zorroan sartzerakoan. Atsedean hartzeko unea heldu zaizu. Lanean dena ondo dabil.

IRATZEA

t




(Abuztuak 18 irailak 16)
Batuetan gauzak ez dira uste duzun bezalakoak, begiratu begiekin eta ez bihotzarekin. Ez ezazu dirua barra-barra bota, baina horrek ez du esan gura zekena izan behar zarenik. Jar zaitez berehala ariketak egiten, zure gorputzak eskertuko dizu eta.

NEGUA

t



(Azaroak 16 abenduak 20)
Ez zaitez horren sentimentala izan, egoera ez delako suziarik botatzeko modukoa eta. Oraingo honetan zure bihozkaide kasu egin, batez ere gai ekonomikoak tartean badaude. Orain duzun sasoiarekin kirola egin gura izango duzu.



EGUNKARIA



KEKO

mungia
OKINdegia

Algortan badaukagu artisauen ogia izen eta jatorriz da "ogi mungia".

Goizero lortzen dogu obispoen guleria probatu bada edo ez dan benetako egia.

KASUNE 28 - T: 94 430 10 76
ALGORTA



denborapasa

HITZ GURUTZATU

	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
1										
2										
3										
4										
5										
6										
7										
8										
9										
10										

LUMA aldizkariaren eskutik

Ezker eskuin

1. Tapa. Bizkaiko autoetan.
2. Gorputz. Sarrerak.
3. Karea lantzen den labea. Espainiako alderdi politikoa.
4. Uranioa. Nahastura trinko. Lakar.
5. Lagunik gabe. Potasioaren sinbolo kimikoa.
6. Izaera duen ezer. Opera kanta.
7. Gipuzkeraz, dut. Lehen bi bokalak. Gaixo.
8. Gauza askoren jakitun. Aluminioa.
9. Gipuzkoako herria. Unatu, akitu.
10. Gorotza. Alferra.

Goitik behera

1. Eskumenak.
2. Ipar Euskal Herrian, begirada. Ugaztun isats eder maltzurra.
3. Tiroz hartuak.
4. Eguraldi hotz hezeetako jantzi. Bostehun. Lehen bokala.
5. Berrogeita hamar. Nafarroako udalerria.
6. Portu. Röntgen. Moztu.
7. Europako estatua. Ezeztza.
8. Bokala. Azalera-neurri anglosaxoniarrak. Zilarra.
9. Kausa partikula. Euskal Herriko oihana.
10. Garbigailua.

Soluzioak

V	T	G	N	A	V	K	A	K	A	K
U	T	A	K	N	A	V	A	V	A	V
L	A	L	U	D	I	T	D	E	R	E
R	I	E	R	A	E	T	A	E	T	A
V	A	R	I	A	K	I	Z	A	K	I
K	K	A	R	R	I	K	B	A	K	A
Z	L	A	R	E	O	R	U	K	A	R
U	I	V	B	O	R	N	K	A	R	O
K	E	A	T	E	A	K	S	O	I	N
B	I	E	S	T	A	L	K	I	B	I



EUSKALDUNON
denbora-pasa
eta hitz jokoen
hilabetekaria

Zozketa mundiala*
harpidedunen artean
8 eguneko kruzeroa 2 lagunentzat
Mediterraneoan (otorduak barne)

* Zozketa 2003/03/31n eguingo da

BIDALI ZURE DATUAK ETA IZAN ZAITEZ LUMA-KO HARPIDEDUN



BAGABIGA, E.M.E.
Istillaga plaza 2 behe. 307 PK-20304 IRUN
Tfnoa: (+34) 943 62 95 64 - (+34) 943 63 08 83
luma@xedera.com / www.xedera.com



Bittor Egurrola

Erromoko Zasi-Eskola dantza taldea, 1958

Hona hemen Erromoko Zasi-Eskolako dantzariak Erandioko udaletxeko plazan, 1958an Bizkaiko txapelketa irabazi ondoren. Argazkian taldekide guztiak agertzen dira baina irabazlea nagusien taldea izan zen, zortzi mutilek osatzen zutena (zutunik dauden zazpi mutilak eta San Marín, taldeko arduraduna eta irakaslea). Taldekideak erromoztarrak ziren guztiak eta dantza saioak egiteko gaur egun Kultur Etxea dagoen eraikinean biltzen ziren astero, beheko solairuan. Erdikoan, Gobela kultur elkarte zegoen, goikoan eskola publikoa.

Geroago Oblatos-en fraile ikastetxera pasatu ziren baina 1968 aldean ikastetxea bota eta Particular de Alonson eraiki zen berria. Orduan behin-behinez desagertu zen hogeitun urte lehenago Jesús Andrések, Ignacio Goikuria abadeak, Santi Marín eta beste batzuk sortutako taldea. Izenak ematea beti izaten da eztabaidagarria, baina hiru horiek derrigorrez aipatu behar dira. m

Lehenengo lerroa, zutunik: Javi Saliqué, Manolo Ortiz, José Ignacio Vigiola "Kokola", José Muguruza, Ramón Mambilla, Pedro Mardaras, Fito (?) / **Bigarren lerroa, zutunik:** Angel Larrazabal, Marisol Silvano, Begoña Aresti, Ignacio Goikuria (abadea), ?, Marije Gallego, ?, Mila ?, Tere Bernardo, ?, Alicia Cajigas, Ana Coria, ?, ? Fernández, ? Vigiola, Begoña Ibarra / **Hirugarren lerroa, zutunik:** ?, Marieli Vega, Yolanda Vega, Arantza Zuazo, "Anu" Otegi, Mari Feli Garcia, Pili Medayo, Javi Uria / **Laugarren lerroa, eserita-makurturik:** Pedro López de la Calle "Carbonilla", Miren Estankona, ?, José Luis Lasa, Alfredo Alonso "Pirito" (GB), José Isaac, Genaro (Loiuko txistularia), ?, Begoña Allende, ? Vigiola / **Bosgarren lerroa, eserita:** Marijose Martinez, ?, Txelo Larrazabal, ?, Karmele Martinez, José Antonio Asensio "Piru", ?, Angel Cajigas, Santi Marín (irakaslea eta arduraduna), Luis Fernando Cajigas, Angel Juez "Txamako", María Elena Setien, ?

* Oharra: aldizkarian argitaratzeko argazki zaharrik bazenu, jarri zaituz mesedez UKrekin harremanean: 94 491 13 37

asmatu eta irabazi > bi lagunentzako bazkari bat



Nor da?

- Bere benetako abizena Pérez da
- Orain urte batzuk utzi zion bertsotan jarduteari
- Laratzean erretzen ditu sorginak eguenero

> Aurrekoaren erantzuna: Julen Guerrero
> Irabazlea: * **Lamiak euskaltegiko ikasleak (Leioa)**

*deitu telefonoz goizez: 94 491 13 37

Bidali erantzuna eta zure izen-deiturak, asmatzen duzuenon artean bi lagunentzako menu berezia zozketatuko dugu:
UK Uribe Kostako Aldizkaria. 171 posta kutxa 48990 Getxo
ukaldizkaria@telefonica.net / faxa: 94 491 58 31

Gardoki Jatetxea



Mendieta kalea 47
Sopela
Telf. erreserbak: 94 676 07 61
astelehenetan itxita

AMAIA URKIA > kazetaria

“Intransigentziak beldurtzen nau”



Zure izaera definitzen duen ezaugarrien bat...

Zabaltasuna izan daiteke.

Zein da zure akats edo maniarik nabarmenena?

Inpaziente samarra naiz.

Zure haurtzaroko oroitzapen bat...

Gehienak udako oporrekin lotzen ditut, amaren herrira joaten nintzenekoak. Baina hauek ez dira bakarrak.

Zein da gehien miresten duzun pertsona?

Etorkizunean pentsatzen dakiten pertsonak miresten ditut. Eta idazle, musikari... eta artista handiak orohar.

Zer da jarraitzaile batek esan dizun gauzarik ederrena?

Nik egindako lanean konfiantza daukatela entzutea gustatzen zait.

Zein da zure libururik gogokoena?

Europa Europa, John Bergerrena. Liburu honetan oso ondo islatzen da nekazaritza mundutik industrializazio mundurako jauzian egon diren aldaketak. Beste bat aipatzearren, *El ruido de la furia*, Folderrena.

Abestirik gustukoena? Lou Reedeen aspaldiko kantak.

Eta film bat?

El apartamento, Billy Wilderrena. Berak egindako film gehienak izugarri gustatzen zaizkit.

Zerbaitekin damutzen zara?

Bai, baina ez dut atzera begiratuko, akatsak akatsak dira.

Zein lelorekin egiten duzu bat?

“Vive y deja vivir” batez ere bizitzen ari garen egoerarekin lotuta.

Zertan edo norengan sinesten duzu?

Zintzoa den jendearengan.

Zerk ematen dizu beldurra?

Alde batetik, sendaezinak diren gaixotasunak. Bestetik, gizartean dagoen fanatismoak eta intransigentziak beldurtzen nau.

Nork edo zerk egiten zaitu zoriontsu?

Ingurukoak pozik ikusteak. ^m

AMAIA URKIA- Hamaika urte igaro dira Gipuzkoatik irten zenetik, eta orain Sopelan bizi da. Kazetaritzan lizentziatua, ETBko aurpegi ezaguna dugu, hainbat programa eta albistegi aurkeztu du-eta. Gaur egun, goizean eskaintzen den *El Punto* saioa aurkezten du.

II. ABRA saria euskal herriko bertsolari gazteak

Bertsolariak:

Jon Martin [Oiartzun]
Miren Loizaga [Sopela]
Manex Agirre [Aramaio]
Miren Ibarluzea [Mungia]
Iñigo Izagirre [Itziar]
Ekaitz Larrazabal [Algorta]

Gaijartzailea:
Josu Esnaola

Andres Isasi Musika Eskolan [Areeta - Getxo]
Martxoaren 29an larunbata 19.00 etan
Sarrera: Gonbidapena hilaren 17tik aurrera
jaso daiteke ALBEn, UKn eta Kultur Etxean.